BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA

KULTURA: DANBAKA LEHIAKETAN IZENA EMATEKO EPEA LUZATU /15

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko urriaren 8a • IV. urtea • 171. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

European Newspaper AWARD
Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

AGURTZANE ELKORO

"Ikastola urruntzen ari da gizartetik, eta berriro plazaratu nahi dugu Kilometroekin" /9

Goienka2a

GOITBk programazio eta irudi berriak aurkeztu ditu

ASTEKO GAIA: BERTAKO FAUNA EZIN DA HAN BIZI

Deba ibaia hilda dagoela diote adituek

Deba ibaia biologikoki hilda dago, hau da, ibai horretan bizi beharko litzatekeen animalia edo landarerik ez dago gaur egun, eta ezin izango dira bueltatu harik eta ibaia garbitu eta biziberritzeari ekin arte. Itxuraz, ez du hala ematen; izan ere, ahateak, arrainak eta landareak ikusten ditugu askotan, baina horiek espezie *inbaditzaileak* dira.

Hala ere, badago esperantzarik: adituek diote testuingurua ona dela ibaia txukuntzeko eta bere aberastasuna, neurri batean, berreskuratzeko. /2-3

Aste istilutsua izan dute Eskoriatzan

Eskoriatzako Askatasunak deituta, astean kale agerraldiak egin dira Eskoriatzan, Marixol Iparragirre ETAko ustezko buruzagiaren atxiloketa dela-eta. Domekan eta astelehenean istiluak izan ziren. Bestalde, martitzenean udalbatzak onartutako mozioagatik polemika sortu da. /4

Ikasturte hasierako ekitaldia MUn

Mondragon Unibertsitateak 2004-2005 ikasturtearen inaugurazio ekitaldia egin zuen astelehenean Arrasaten. Amaia antzokian egin zuten inaugurazio ekitaldia, eta Juan Jose Ibarretxe lehendakaria han izan zen. /5

EZTANDA TALDEA

Ibarreko Paint-ball jokalariak bikain

Eztanda paint-ball taldeak emaitza ezin hobeak eskuratu ditu txapelketetan esku hartu duen lehenengo urtean. Martxoan Santanderko Txapelketan onenak izan ziren, eta orain, Kantabriako Ligan txapeldunorde izan berri dira. Eztanda taldean dihardute ibarreko hainbat paint-ball jokalari. Azkenaldian boladan dagoen kirola da paint-balla. Geroago eta gehiago dira, gainera, gure ibarrean ere, kirol hau egiten dutenak. Askorendako, hala ere, ezezaguna izango da bai kirola eta baita kirol honen izena bera ere. Labur esateko, gezurretako armak erabiliz, batzuen eta besteen arteko lehia izango litzateke. /11

BERGARA

Udalak Sukiari saldu dio bus geltokiaren pareko orubea

Bergarako Udalak Sukiari saldu dio autobus geltokiaren pareko orubea, 5,3 milioi euroren truke. Orube horretan 48 etxebizitza eraikiko ditu Sukiak, eta Arrizuriaga parkearen urbanizazioaren kargu ere egingo da Sukia bera, 300.500 euroko aurrekontuarekin. Ibargarain gaur egun hutsik dauden bi orubeetan —zezen-plaza ipintzen duten tokian— bi etxebizitza bloke egingo dituzte. /7

BERGARAN
INAUGURAZIO ESKAINTZA!
Lehenengo hilabetean, graduatutako armazoiak, deskontua: %50

INSTITUTO OPTICO
Bidekurutzeta 10
BERGARA
Tel.: 943 76 97 03

Indonesiako altzariak
Erdi-prezioan!
URRETXUn
Udazken kanpaina
(urriaren 25etik azaroaren 30a arte)
Indonesiatik inportaturik, zure etxerako mota guztietako tekazko altzariak
Ordutegia:
10:00etatik 13:00etara eta
17:00etatik 20:00etara
(astelehenetik zapatura)
eta 11:00etatik 13:00etara (domeketan)
943 72 53 26
www.lba-antic.com



DEBAGOIENA/4-6 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/8 • KIROLA/11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko urriaren 8a

Deba ibaia dirudien baino askoz okerrago dago oraindik ere

Animaliak eta landareak egoteak ez du esan nahi garbi dagoenik

LEIRE KORTABARRIA

Erakundeek eta adituek esaten dutena esaten dutela, beharbada Deba ibaia ez dago beti uste izan dugun bezain zikin. Hala uste izango zuten akaso tartekamarteka Deba ibaian arrainak eta ahateak ikusi izan dituzten bizilagunek. Horrez gain, hainbat lekutan, ura bera ere garbiago ikusten da: hala nola, Oñatiko, Leintz bailarako eta Aramaioko ibaiadarretan. Ibaiertzek ere ez dute hain itxura txarra zenbait tokitan; izan ere, landaretza oparoa ikusten da horietan, batez ere haltzak, baina baita bestelako flora ere.

Itxura horrek ez dezala inor okerrera eraman, ordea: Deba ibaia penagarri dago oraindik, eta adituek ohartarazten digute urteak pasa beharko direla egoera hori hobetzeko. Esamoldeak dioen bezala, urak –Debarenak, kasu honetan– bide handia egin beharko du.

IBAIKO ANIMALIAK

Arrain taldeak ez dira urte osoan agertzen, eta horrek bakarrik uraren kalitatearen gaineko zer edo zer susmarazten du. Noizbehinka, jendeak amuarrainak, mazkarrak, eta, batez ere, ezkailuak ikusi izan ditu Deban. Foru Aldundiak ere hala azpimarratu zuen Deba arroaren gaineko azken ikerketan, 2003koan. Adibidez, Oñatin, 2003an lehenengo aldiz harrapatu ziren amuarrain eta mazkarrak. Antzuolan ere, ezkailu asko ikusi ziren urte hartan, eta, batez ere, Aixolan, Elgetan.

Hala ere, arrainak egote hutsak ez du derrigorrez osasuna adierazten. Lehenik eta behin, Aldundiak gaineratzen duen bezala, ibaiaren baldintzak "txarrak" dira arrainen bizi iraupenerako, Aixolan izan ezik. Beste guztietan, arrainek ezin dute bizi iraun; ez bertako espezieek, behintzat. Arrain horiek alde egiten dute luzaroago bizi iraun ezin dutenean.

Baina kontua da arrain multzoak denbora luzean ere ikusten direla. Baita bestelako animaliak ere: esaterako, karpa gorriak eta ahateak. Bada, hori da Deba ibaiaren arazorik handienetako bat: bizi irauten duten izaki gehienak –ahateak eta landareak barne– espezie arrotz eta inbaditzaileak dira, eta adierazten dutena da, hain justu, ibaia txarto dagoela. Adibidez, karpa oso arrain exotikoa da, eta ur ustelustelak gustuko ditu. Kiko Alvarez biologo bergararrak gaineratzen du: "Deba ibaia hilda dago. Espezie horiek aprobetxatu egiten dira, ez dute lehiakiderik, eta hor egiten dute bizitokia". Alvarezen esanetan, "animalia espezie horiek dira arazo handi bat Deba biziberritze aldera". Izan ere, espezie inbaditzaileak bertakoen etsai dira.

Ibaiaren osasuna neurtzeko benetan fidagarriak dira begiratu hutsean ikusi ezin ditugun animaliak: ibai-ohantzean bizi diren intsektuak, hain zuzen ere. Horiek ezin dute alde egin bizi baldintzak txartzen direnean.

Ura garbiago agertzen da, baina kutsadura gehiena desbideratu egiten delako da

Deban bizi diren izakiak inbaditzaileak dira, bertakoendako kaltegarriak

LEIRE KORTABARRIA

Debagoieneko tarte kutsatuenetako bat Elorregikoa da; izan ere, hainbat kolektorek han botatzen dute jasotako zikinkeria.

LANDARETZAK DIOENA

Ibai inguruko landaretzak ere adieraz dezake ibai hori zelan dagoen; baina horrek engainatu egin gaitzake. Deba ibaian, Iñaki Irizar biologoak dioskun bezala, "ibai bazterreko landaretzaren zati handi bat galduta dago". Tarte batzuetan ikusten ditugu, hala ere, haltz eta sahats lerroak, eta kasu batzuetan, bertako baso motek irauten dute.

Landaretza ugari egoteak ere ez direnak uste izatera eraman gaitzake, Eusko Jaurlaritzako iturri aditu batek dioskun bezala: "Landare edo zuhaitzak egoteak ez du ibaiaren kalitatearen gainean ezer esaten. Zenbat eta landare gehiago, orduan eta hobeto ibaiarendako; baina alderantzizkoa ez da egia, hau da, landare asko egoteak ez du esan nahi ibaia ondo dagoenik", dio.

Bestalde, askotan landaredia berreskuratzeko lanak egiten dira hainbat tartean. Milaka euro diru publiko inbertitzen dira. Baina arazoa da jende askoren kontzientziazio falta: ibaiertzetako lurra laborantzarako edo euren ustiapenerako hartzen duen jende asko dago. Sasi-garbitzeko makina batek denbora laburrean alferrik botatzen du urteak eta diru asko hartu dituen biziberritze lana.

URAK, APUR BAT GARBIAGO

Kontua da, ordea, ibaia benetan garbiago dabilela hainbat lekutan; izan ere, administrazioak elkarlanean ari dira Deba ibaia garbitzeko sarea eraikitzeko, eta horko kolektore batzuk funtzionatzen ari dira hilabete edo urte batzuez geroztik. Hori da Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateren kasua. Baina, Felix Izco Foru Aldundiko Uraren Kontrol eta Kalitate Unitateko buruak azaltzen digunez, "kolektoreek kutsadura lekutik aldatu besterik ez dute egiten. Horrek aurkako eragina ere izan dezake; izan ere, ibai zati horiek euren kabuz depuratzeko gaitasuna galtzen dute". Egoerak bere horretan segituko du harik eta ibarreko bi araztegiak egin arte: bata, Bergarakoa, egiten hasiak dira, baina bigarrena, Epelekoa, azkenerako utzi dute. Araztegiak 2007. urtean zabaldu nahi dituzte.

ENEKO AZKARATE

GARBIKETA SAREA EGITEN DIHARDUTE

Ibaia garbitzeko instalazioak 2007an zabaldu nahi dituzte erakunde publikoek. Horretarako lanek aurrera dihardute ibarrean: argazkian, Bergarako kolektore sareko lanak agertzen dira. Horrez gain, Antzuola eta Elgetako sareak falta dira. Debabarreneko kolektoreek osatuko dute sarea: han, Deba, Elgoibar eta Mutriku eginda daude, eta Eibar eta Soraluze falta dira.

Kolektoreez gain, uren garbitasuna azaltzen duen beste datu pozgarri bat dago. Felix Izcoren esanetan, "ibaiak zerbait hobera egin du; izan ere, lantegi eta tailer asko kentzeak ekarri du metalen kutsadura jaistea".

KONTZIENTZIAZIOA, EZINBESTEKO

Deba ibaia osatzea posible ikusten dute adituek. Hori bai: muga batzuekin. Iñaki Irizarren hitzetan, "garai bateko ibaia sekula ez dugu berriro izango: ibilgua asko aldatu da, jende asko ibaiertzetan bizi da, eta Debagoienak beharrezko dituen enpresa asko ere hortxe daude".

Hala ere, dirua eta denbora inbertituz gero, ibai oso txukuna eta nahiko aberatsa izan dezakegu". Kiko Alvarezek itxaropenerako beste datu bat ematen du: "Ibaiak oso esker oneko ekosistemak dira; izan ere, neurriak hartzen hasi eta gutxira sumatzen da hobekuntza". Egin beharreko lehenengo gauza da ura garbitzea, baina kontuan hartu behar da ibaia ez dela bakarrik ura, baizik eta ingurunea eta hortik bizi diren izaki guztiak ere. Erakundeak lanean ari dira, eta adituek diote, ahalegina eginez gero, asko hobe daitekeela.

Denetan bezala, ordea, emaitza borobila lortzea ezinezko izango da herritarren kontzientziazio eta parte-hartzerik gabe. Izan ere, sinestezina dirudien arren, oraindik zabor-poltsak ibaira botatzen dituzte hainbatek.

Ura, herriz herri

- Arrasaten, kutsadura asko jaitsi da, kolektoreari esker. Baina amonio maila altuak arrain-bizitza galarazten du.
- Elorregin, kolektoreek bildutakoa jasotzen da. Arroko kutsadura altuenetakoa du.
- Bergara-Soraluze tartea "oso zikin" dago. Arrainak ezin dira hor bizi.
- Udan izaten dira baldintza txarrenak: tenperatura 30 gradu ingurukoa da eta oxigenoa bere maila baxuenetan dago.
- Aramaio erreka txarra da arrain bizitzarako, amonio eta fosfato maila oso altuekin.
- Oñatin, ibaiak hobera egin du, kolektoreari esker: arrainak ibili ziren, baina ez luzaroan.
- Urkuluko erretenak "uste baino maila okerragoa" ematen du.
- Elgetako erretena da gureko garbiena, amuarrain eta ezkailu askorekin.

ITURRIA: FORU ALDUNDIA.

IÑAKI IRIZAR / BIOLOGOA

"Ibai aberats bat berreskuratzeko aukera dago"

Iñaki Irizar biologo bergararrak ohartarazten du arrainak-eta ikusteak ez duela derrigorrez garbitasuna adierazten. Hala ere, gure ibaiaren etorkizuna ez du gaizki ikusten.

Deba ibai inguruan ahateak eta arrainak ikusi izan ditugu. Horrek ezer adierazten du?

Noiz edo noiz agertzen dira arrain taldeak, bai: korronteak, tenperatura… egokiak topatzen dituztenean, ibaiadarretatik etorrita, han eusten diote denboraldi baten. Hala ere, hori behin-behinekoa da: ahal dutena irauten dute han, eta bizi baldintzak okertzen direnean, alde egiten dute edo hil. Basahate eta uroiloen kasua desberdina da; ingurune kutsatuetan irauteko ahalmen izugarria erakusten ari dira. Ibaia sistema konplexua da, eta sistema hori hondatuta dago orain eta hemen.

Zer diozu ibaiko floraren gainean?

Ibaietako sahastiek eta haltzadiek sekulako aberastasuna gordetzen dute. Baina ezjakintasunagatik edo, ibai bazterretako landaredia *zikinkeria* bezala ikusi da sarritan; txikitu egin ditu jendeak, eta ibaia pobretu. Bestalde, leku batzuetan, ibaiertzak biziberritzeko lanak egiten dira, baina gero, lekua bertan behera uzten da.

Ibaiertzak aipatu dituzu. Zein da horien garrantzia?

Handia da, izan ere, ibaia honako elementu hauen multzoa da: ura, uraren ibilgua, bazterrak, eta horietan bizi diren izakiak. Ibaiertzetan bizi dira ibaiari lotutako fauna eta landare espezie gehienak, eta ez hori bakarrik; ibaiertzaren egoerak uretako fauna eta landaredian eragin handia du, arrainetan ere bai.

Ibaiaren aberastasuna berreskuratu ahal izango da?

Ibaiaren osagai guztiak daude oso jota Deba ibarrean: uraren kalitatea txarra da; ibilgua asko eraldatu dugu obra publiko handiekin, zati batzuk berreskuraezinak izatera eramateraino. Ondorioz, ibaien aberastasuna asko galdu da. Panorama horrekin garbi dago garai bateko ibai idilikoa berreskuratzea ezinezkoa dela.



Iñaki Irizar.

Oraindik ondo dauden ibilguak eta ibai ertzak gehiago hondatu gabe kontserbatu daitezke; hondatuta dagoena errestauratu egin daiteke, neurri batean; fauna eta landare espezie arrotzak kendu daitezke; galdutako edo galzorian ditugun flora eta fauna espezieak ere leheneratzen saiatu gaitezke. Ibai aberats eta erakargarri bat berreskuratzeko ahalmena eta aukera badago, noski baietz. Lege eta ezagutza tekniko egokiak ditugu. Borondate, diru, lan eta denbora kontua besterik ez da.

bitart
Abokatutza eta bitartekaritza
Lege arazoen konponbide labur eta baketsuak
Larraitz Ugarte
Maider Morras
Nafarroa etorbidea 23
ARRASATE
943 71 25 22/23

Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 35 71
Ile kalitate bakoitzerako laser bat:
•Alexandrita laserra
•ND:YAG:
•Fotodepilazioa (argi pultsatua)
Proba DOAN ordua eskatuta
DEPILTOTAL Sarearen zentro gertukoena
Azkarra, etengabea eta segurua

INGLESA FRANTSESA ALEMANA
Hizkuntzak
✔ Multimedia dohainik edozein ordutan
✔ Irailean matrikula dohainik
Sistema prezentziala - Talde txikiak - Experientziadun irakaslegoa
Irakaskuntza metodo aurreratuak
Cambridgeko azterketarako gertaketa: Maila guztiak
Starters-etik PET, Proficency-ra
AKADEMIA BASTIDA
Ikasleak: [6-8 urte][9-12 urte] [13-16 urte]
Nagusiak: [Maila guztiak]
Empresak: [Maila guztiak] [" In Company"]
943 79 35 33 bastida@bastida.es

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko urriaren 8a

Eskoriatzan onartutako mozioa ez dute aintzat hartu zuzendaritzek

EAJ, EA eta EBko zuzendaritzek arbuiatu egin dute zinegotziek onartutako testua

GOIENKARIA

EAJ eta EBren zuzendaritzek atzera bota dute, Marixol Iparragirreren atxiloketaren harira, alderdiko zinegotziek onartutako mozioa. Bestalde, EAko bozeramaile Onintza Lasak adierazi du "ez dutela onartuko inork demokraziari buruzko irakaspenik ematea" eta Rafa Larreinak esan du Eskoriatzan onartutako mozioa ez dutela gustuko.

Martin Calvo EBko idazkari instituzionalak GOIENKARIAri adierazi dioenez, hasiera batean behintzat ez dute neurri berezirik hartuko. "Gure ustez zinegotzien hanka-sartze bat izan da, baina era berean, kontuan izan behar dira horrelako kasuetan herrietan izaten diren presioak . Hala ere, garbi dugu onartutako mozioak irakurketa partziala egiten duela, ETAren indarkeria ez baitu aipatzen, eta hori da arazorik larriena".

Lerro hauek idazteko orduan, EAJkoek zer erabakiko zuten erabakitzeke zegoen, baina Josu Ezkurdia EAJko Eskoriatzako zinegotziak adierazitakoaren arabera, alderdiko zuzendaritzak aginduko diena betetzeko gertu daude. "Alderdiak finkatzen digun jarrera errespetatu egingo dugu, eta beste mozio bat aurkeztu edo gaia argitzeko idatziren bat kaleratzea eskatzen badigute, hala egingo dugu", azaldu dio Ezkurdiak aldizkari honi.

GOIENKARIA

Astelehenean ertzaintzak Marixolen anaia identifikatu nahi zuela-eta, kargatu eta zauritu egin zen. Konortea galdu zuen anaiak.

ONARTUTAKO MOZIOA

EA-EAJ, EB, Kontzejupe eta Elizateetako ordezkariek adostutako mozioa izan zen, joan den martitzenean ezohiko osoko bilkuran onartu zena. Bilkuran ez ziren izan PSE-EEko zinegotzi biak eta EAJko bat ere falta zen. Aldeko zortzi botorekin onartu zuten mozioa EA-EAJ, EB eta Elizateetako ordezkariek. Joan den domekan ETAren aurkako polizia operazioaren harira, Marixol Iparragirre eskoriatzarraren atxiloketa dela eta, "familiartekoei elkartasuna adierazi, eta bakea lortzeko indarkeriaz behingoz bukatu eta gatazka konpontzeko giltza dutenei —EAEko eta Nafarroako parlamentuei, Espainia eta Frantziako gobernuei eta ETAri— gizarteak behin eta berriz eskatu diona egitea" eskatzen zitzaien. PSE-EEkoak ez ziren osoko bilkuran izan; Iñaki Pierruges ordezkariaren esanetan, onartutakoak poliziaren lana gutxiesten du.

EA-EAJ, EB eta Elizateetako ordezkariek onartu zuten mozioa martitzenean

KALE AGERRALDIAK ETA ISTILUAK

Eskoriatzako Askatasunak deituta, astean kale agerraldiak egin dira Eskoriatzan, eta domekan eta astelehenean istiluak izan ziren bilkurara gerturatu zirenen eta Ertzaintzaren artean. Astelehenean eserialdia egin zuten Herriko Plazan, eta ertzainek norbait identifikatu behar zutela eta Marixolen anaia eraman zuten. Furgonetara sartu behar zutenean, zauritu eta konortea galdu zuen. Une hartan tentsio giro handia izan zen Eskoriatzako plazan, herritar ugari baitzen bertan. Ondorengo egunetan, baina, Askatasunekoek agerraldia egiteko baimena eskatu, eta ez zen arazorik izan. Talde horrek gogor gaitzetsi zuen Ertzaintzaren jarrera. Bien bitartean, EAJk Juan Carlos Bengoa alkateak egindako ahalegina goraipatu du: "Alkateak lan handia egin du Ertzaintzaren zuzendaritzakoekin harremanetan jarri, eta hurrengo egunetan istilurik gerta ez zedin". Era berean, jeltzaleek gogoratu dute lehenengo bi egunetan ez zela baimenik eskatu, eta kale agerraldiak egiteko baimena eskatzea beharrezkoa dela.

23 URTE SASIAN IBILITAKOA

Marixolek 20 urterekin egin zuen alde Eskoriatzatik

1981ean alde egin zuen jaioterritik, Aingeruguarda baserritik. Marixolek 20 urte zituen orduan. Ihesi joan aurretik, egun batzuetan atxilotuta egon zen senitarteko batzuekin, baserrian ETAko komando bati babesa eman ziotela-eta. Aitak, Xanti Iparragirrek, alde egin zuen.

HAINBAT ATENTATU LEPORATU

Poliziaren arabera Madril eta Araba komandoetako buru zen

ETAren atentatu askotan parte hartutakoa da Marixol, betiere polizia iturrien arabera. Madril eta Araba komandoetako buru izatea eta hamalau hilketa leporatzen dizkiote. 94an hasi zen *Anboto* goitizena erabiltzen, ETAko komando legalen ardura hartu zuela-eta.

'MIKEL ANTZA'-REN BIKOTEKIDEA

Zortzi urteko semea dute 'Antza'-k eta Marixolek

***Antza* eta Marixol Biarnon (Saliesen) bizi ziren, zortzi urteko semearekin batera. Joan den martitzenean, *Mikel Antza*-ren familiartekoen esku geratu zen semea. Ondoren, bikotekideek erabakiko dute amaren edo aitaren familiartekoekin biziko ote den semea.**

21.000 EURO ZITUZTEN ETXEAN

Ordenagailu, fotokopiagailu eta dokumentuak atzeman dizkiete

Albisu eta Iparragirre bizi ziren etxean lau ordenagailu, fotokopiagailu bat, dokumentuak eta 21.000 euro zeuden. Bi atxilotuek atzo, eguena, deklaratu behar zuten Levert eta Houyvet epaileen aurrean. Espainiako Auzitegi Nazionalak Marixol Espainiaren esku uzteko eskatu du.

Euskararen erabileraren gaineko liburua kalean

Datorren eguenean aurkeztuko dute Bergarako UNEDen

EDU MENDIBIL

***Euskal hizkuntza komunitatearen bizindar linguistikoa: Andoaingo, Arrasateko, Bergarako, Hernaniko eta Lasarte-Oriako udalerriak* izenburuko liburua aurkeztuko dute datorren astean.**

Liburua eguenean, hilaren 14an, aurkeztuko dute, Bergarako UNEDeko aretoan, 19:00etan. Soziolinguistika Klusterrak argitaratu du liburua, izenburuan azaltzen diren udalen laguntzaz.

Iñaki Martinez de Luna eta Ibon Usarralde soziologoak dira liburuaren egileak. Haien esanetan, erabilera da euskararen normalizazioaren adierazle adierazgarriena eta erabileran zeresana duten faktoreak identifikatu, bakoitzaren garrantzia zehaztu eta neurtzen saiatu dira, eskuartze ekimen eraginkorrak bideratzeko asmoz: "Bizindar etnolingustikoaren eta euskararen erabileraren arteko erlazioan sakontzen saiatu eta erlazio horren intentsitatea zenbatekoa den azaldu nahi izan dugu", diote.

Liburuan 2002an egindako ikerkuntzaren emaitza jaso dute. Euskararen ahozko kale erabilerari dagokionez, erabilera handiena Bergarak dauka: %39; hurrengo, Arrasatek (%30) eta Hernanik (%30, eta ondoren, Andoainek (%28) eta Lasarte-Oriak (%17).

Aurkezpenean, liburuaren egileek emango dituzte ikerketaren gaineko azalpenak.



Liburuaren azala.

GOIATZ ARANA

Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Jesus Catania MCCko burua eta Ignacio Lakuntza Arrasateko alkatea martitzenean Arrasaten.

Lehendakariak dio unibertsitateek elkarrekin jardun behar dutela

Mondragon Unibertsitatearen ikasturte hasierako ekitaldian izan da

GOIATZ ARANA

Mondragon Unibertsitateak 2004-2005 ikasturtearen inaugurazio ekitaldia egin zuen astelehenean Arrasaten. Amaia antzokian egin zuten inaugurazio ekitaldia.

Politikari ugari izan zen, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria eta Anjeles Iztueta sailburua, horien artean. Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko errektoreak ere han izan ziren, MUkoarekin batera. Baita MCCko buru Jesus Catania ere.

MUko presidente Jesus Goienetxek aurreko ikasturteko memoria akademikoa aurkeztu zuen. 2003-2004 ikasturtean unibertsitatean matrikulatutako ikasleak 4.065 izan ziren, 2002-2003 ikasturtean baino %5,22 gehiago, orotara. Gehienak graduko tituluetan matrikulatu ziren: %60 Goi Eskola Politeknikoan, %22 Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, eta %18 Enpresa Zientzien Fakultatean.

MENDEBERRI PROIEKTUA

Ikasleen eta titulazioen gaineko datuekin batera, Mendeberri proiektua izan zuen hizpide Jesus Goienetxek. Zentzu horretan, karrera batean beti eskuratzen ez diren gaitasunak eta baloreak ikasleei helarazteko ahalegin handiak egiten dituztela azaldu zuen, eta orain arte abian jarritako esperientzia pilotuetan lortutako emaitzak zeharo positiboak izan direla gaineratu.

MUko errektoreak, MCCko buruak eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak ere hartu zuten hitza ikasturte berriaren inaugurazio ekitaldian. Inaxio Oliveri MUko errektoreak esan zuen ikasturte berria dela beste aurrerapauso bat kooperatiben munduak egin duen apustuan, "euskal gizarteari unibertsitate proiektu sozial, moderno eta berritzailea eskaintzeko". Jesus Catania, MCCko presidenteak, ostera, MCCren sorreraren oinarria hezkuntza izan zela eta harrezkero hezkuntzaren alde egiteko konpromisoari eusten diela MUk. Azkenik, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak esan zuen, euskal unibertsitateen sistema estrategikoa dela, eta elkarrekin aurrera egiteko une historiko batean gaudela.

Jakien bilketa egingo dute datorren astean Hiper Eroskin

Jasotakoa Gipuzkoako behartsuei banatzeko izango da

NEREA ZUBIETE

Aurten ere jakien bilketa egingo du Debagoienean Gipuzkoako Jakien Bankuak. Urriaren 15ean eta 16an batuko dituzte jakiak Eroski hipermerkatuan, gero Gipuzkoako behartsuenen artean banatzeko.

Urriaren 15ean arratsaldean egongo dira jakiak batzen Hiper Eroskin eta urriaren 16an, berriz, goizez eta arratsaldez. Bestalde, jendeak gehien batzen duen jakiaren beste hainbeste Eroskik jarriko du, hala laguntza emanez.

GALTZEKO ARRISKURIK EZ DUTENAK

Jendeak gehien ematen dituen janariak dira arroza, garbantzuak, babarrunak, kafea, latak, azukrea, esnea eta olioa. Eta Gipuzkoako bankutik gogoratu nahi diote jendeari, ekimen horretarako jakiak eman nahi badituzte, galtzeko arriskurik ez duten jakiak eman behar dituztela.

Jakien bankua Espainiako Estatu osoan lanean dabilen erakunde bat da eta gero herrialde bakoitzean banatzen dituzte jakiak. Gipuzkoan urte asko daramatza lanean bankuak eta hainbat herritan urtean birritan batzen dituzte jakiak. Geurean, ordea, iaz hasi ziren ekimen hau abian jartzen eta aurten bigarren urtea izango da. Gainera, Arrasateko Eroskin urtean behin baino ez dute hori egiten. Eta ekimen horretan esku hartzen duten lagunak boluntarioak dira, muxu truk egiten dute lan.

TXINATAR MEDIKUNTZA
ETA AKUPUNTURA JAPONIAR
IKASTAROA

Eugenio Ramos Merinoren eskutik
txinatar medikuntza, osteopatia, masajista eta kinesiologian diplomaduna.

Hasiera: urriaren 30a
Iraupena: 130 ordu.
Informazio zabalagoa: Bizkaia etorbidea 12, 2. D
Tel.: 943 77 06 22 / 645 70 17 27

Graduatu osteko ikastaroak 2004/2005
DESLAN FORMACION

Gestio integratuan masterra, kalitateko auditoriak, ingurumena eta prebentzioa (2. edizioa)
- 2004ko urritik 2005eko uztailera.
- 500 ordu bertan.
- Astelehenetik ostegunera.
Laneko arriskuen prebentzioan maila goreneko titulua lortzen da.

Kalitate gestioan eta enpresa bikaintasunean masterra
- 2004ko urritik 2005eko uztailera.
- 100 ordu bertan.
- Astelehenetan.

Ingurumen gestioan masterra
- 2004ko urritik 2005eko uztailera.
- 100 ordu bertan.
- Asteartetan.

Lan arriskuen prebentzioan goi mailako ikastaroa
- 2004ko urritik 2005eko uztailera.
- 650 ordu. (100 ordu bertan).
- Asteazkenetan.

Giza baliabidetan goi mailako ikastaroa
- 2004ko urritik 2005eko otsailera.
- 45 ordu bertan.
- Ostegunetan.

Nori zuzenduta: lizentziadunak, diplomadunak, ingeniariak edo ikasketen azken urtean daudenak.
Ordutegia: 18:45etik 21:45era.
Deskontua: %10 La Previsora Mutualitatera lotuta dauden enpresetako profesionalei.

Lan poltsa
Enpresetan praktikak
Enpresetara bisitaldiak

Antolatzailea
DESLAN FORMACIÓN
Kolaboratzailea
La Previsora
Mutua La Previsora
Koordinatzailea
ASERTEK GESTIÓN
Asesores Técnicos en Gestión de Empresa
bentas Grupo

Informazio zabalagoa:
Florida 17, 1.esk. 7. bulegoa. Gasteiz.
Tel.: 945 131 542 - 09:00-13:00/16:00-19:00
Posta-e: info@deslanformacion.com

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko urriaren 8a

Bergaran ditu zailtasun handienak Debagoiena lotuko duen tranbiak

Arrasateko trazatua ia erabakita dute eta laster jarriko dute jendaurrean

OIHANA ELORZA

Behin betiko planoak urtea bukatu baino lehen onartzea nahi dute eta lanak datorren urte hasieran hastea. Orain, udalek egindako planteamenduak aztertzen ari da Jaurlaritza. Bergarako Gabiria gunean daude zailtasun handienak.

GOIENKARIA

Bergaran (Gabiria aldean) ditu, oraingoz, zailtasun handienak Debagoieneko tranbiaren trazatuak.

Jaurlaritzak egin zuen Debagoieneko tranbiaren behin-behineko trazatua. Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarako udalek euren aldaketak eta proposamenak egin zizkioten lehendabiziko trazatu horri, eta aldaketa horiek aztertzen ari da orain Jaurlaritza udalekin batera. Badirudi udalen eta Jaurlaritzaren arteko negoziazioak bide onetik doazela. Hala ere, oraindik ez dute trazatu osoa erabat finkatu.

Arrasate eta Bergarako udalek aldaketa asko egin zituzten Jaurlaritzak aurkeztutako trazatuan, eta horietako batzuk erabaki gabe dituzte oraindik. Aretxabaletan egin dituzte aldaketa gutxien, hasierako trazatuak beste irtenbide egokiagorik ez zuela ikusi baitzuen Udalak.

BERGARAN ZAILTASUN HANDIENAK

Bergaran, Gabiria izeneko gunea zeharkatu behar du tranbiak herriaren erdigunea eta Labegaraieta auzoa lotzeko, handik Arrasate aldera joateko gero. Eta puntu hori da arazo tekniko handienak dituena, hain zuzen ere. Torrekuan geltokia izango du ziurrenik tranbiak eta puntu horretatik aurrerako bidea nondik nora eta nola egin da arazo larriena.

Puntu hori zeharkatzeko hainbat ideia aztertu dituzte: bariantea eskumara desplazatu, gero etxeak egingo diren lursailari zati bat kendu, tunela egin edo ibaiaren gainean zubia egin, besteak beste. Gabiriako gunean, gainera, erakunde askok dute parte-hartzea: argindarraren enpresak, Diputazioak, uren eta ibaien ardura duen planak eta Bergarako Udalak, besteak beste. Irtenbide egokiena zein den erabakitzeko, enpresa bat kontratatu dute azterketa tekniko sakona egin dezan.

UNIBERTSITATETIK PASATUKO DA

Jaurlaritzak hasierako trazatuan idatzi bezala, unibertsitatetik pasako da tranbia eta tunel bat egingo dute Euskadiko Kutxa eta Lagun Aro dauden alde horretan, tranbia Aretxabaletaruntz joateko. Udalak ez zuen tunel hori egitea nahi eta tranbia Arimazubi etxeguneen aurretik pasatzea proposatu zuen, baina azkenean Unibertsitatetik pasako da. Hasieran jaso bezala, Arrasateko eskualde ospitaletik ez da pasako Debagoieneko tranbia eta Udalak Gelma gunean oinezkoendako bidea egingo du tranbia eta ospitalea lotzeko.

> *Jaurlaritza eta udalak tranbiaren gaineko aldaketak aztertzen ari dira orain*

Bi puntu horiek ziren Arrasateko Udalak zituen arazorik handienak, eta behin horien gaineko erabakiak hartuta, dagoeneko ia onartuta dago tranbiak Arrasaten izango duen behin betiko ibilbidea, eta laster jendaurrean erakutsiko dute.

Tranbia lehengo trenbidearen bidetik joango da zati gehienetan eta orain, bidegorriak nondik nora egin ere aztertu beharko dute udalek.

LABUR

Paulo Elkoro epaituko dute datorren astean

Urriaren 13, 14 eta 15ean epaiketa egingo diote Paulo Elkoro preso bergararrari Espainiako Entzutegi Nazionalean, Madrilen. Autobusa antolatu dute eta joan nahi dutenek urriaren 11 baino lehen eman behar dute izena ohiko tokietan. Epaiketak irauten duen bitartean, kale bilkurak egingo dituzte, egunero, Bergarako San Martin plazan 19:30ean hasita. Paulo Elkoro 2003ko urtarrilean atxilotu zuten Alemanian, Nuremberg-en, hain justu ere. Atxilotu eta Municheko espetxean sartu zuten. Aurtengo udaberrian, ostera, Espainiara estraditatu zuten. Paulo Elkorok bost urte zeramatzan Bergaratik kanpo atxilotu zutenean, 1998tik, hain justu ere, Guardia Zubilak Bergaran, Antzuolan eta Gasteizen egindako polizia operaziotik. Sarekada hartan hamaika lagun atxilotu zituzten Araba Komandoko kide izateagatik.

Kamioi gidari bat hil zen AP-1 autobidean

Kamioi gidari bat hil egin zen astelehenean, istripuan, AP-1 autobidean, Bergaran, Uberako zubi-bidean. Bi kamioik elkar jo zutenean gertatu zen istripua. Bide bazterrean geratuta zegoen Man markako kamioi bat jo zuen Eibarrerantz zihoan marka bereko beste kamioi batek eta, ondorioz, geldi zegoen kamioiko gidaria hil egin zen. Hildakoaren gorpua Donostiako Forenseen patologia zerbitzura eroan zuten. Bidea itxita egon zen Eibarreko joranzkoan.

UDA-ALOÑA
Aretxabaletarren eta oñatiarren arteko derbia Goiena Telebistan.

Domekan, urriaren 10ean
Ibarra futbol zelaian, 16:30ean.
19:30ean GOITBn

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

UDA-ALOÑA MENDI
Aretxabaletako laguntzaileak: Ezkutu, Haizea eta Ibarra jatetxea
Oñatiko laguntzaileak: Olakua eta Ongi Etorri taberna



OÑATI

Zabalik dago anbulatorioaren atzean egin duten aparkaleku berria

Dagoeneko zabalik dago anbulatorioaren atzealdean egin duten aparkaleku berria. 65 autorendako tokia du aparkaleku horrek eta horietako bi elbarriendako dira. Anbulatoriora doazenek ez ezik, gainontzekoek ere erabil dezake; esaterako, Zubikoa kiroldegira edo ikastolara doazen lagunek. Beste inon tokia aurkitzen ez dutenek ere bertan utz dezakete autoa orain.

Kalegoienean, 180 autorendako lur azpiko aparkalekua egiten ari dira. Oñatin, 6.297 auto daude guztira. /O.E.

ARTXIBOA

BERGARA

Udalak Sukiari saldu dio autobus geltokiaren pareko orubea

Bergarako Udalak Sukiari saldu dio autobus geltokiaren pareko orubea, 5,3 milioi euroren truke. Aipatutako orubean 48 etxebizitza eraikiko ditu Sukiak, eta Arrizuriaga parkearen urbanizazioaren kargu ere egingo da Sukia bera, 300.500 euroko aurrekontuarekin. Ibargarain gaur egun hutsik dauden bi orubeetan —azken urteotan, Pazkoetan zezen-plaza jarri izan den bi tokietan— bi etxebizitza bloke egitea zehazten da. Aipatutako bloke bakoitzak bost solairu eta 48 etxebizitza izango ditu eta bi blokeen erdian plaza bat izango da. Arregi, Toki Eder eta Ortuibar enpresak dira beste orubearen jabeak. Oraindik ez da zehaztu aipatutako etxebizitzak egiteko lanak noiz hasiko dituzten. /EDU MENDIBIL

ARETXABALETA

Akordeoi taldeko 26 kide Mexikora doaz kontzertuak eskaintzera

Bihar, zapatua, Mexiko Hirira abiatuko dira Aretxabaletako akordeoi orkestrako 26 kide, tartean lau guraso.

Mexiko Hiriko Euskal Etxetik gonbidapena jaso dute, eta bertan ez ezik hiriburuko beste hainbat tokitan eta Acapulcon ere eskainiko dituzte kontzertuak. Urriaren 24an itzuliko dira, eta bidaiak 38 mila euroko aurrekontua du.

Azkenaldian gogor egin dute lan taldeko kideek, kontzertuen kalitatea ahalik eta handiena izatea nahi baitute. /MARIA AGIRRE

ANTZUOLA

Seinaleztapen berriak jartzeko lanak hasi berri ditu Udalak

Hainbat lan egiten hasi da Udala: zebrabideak eta aparkalekuak margotu eta bidegurutzeak seinaleztatu, besteak beste.

Hainbat aldaketa ere egingo dituzte: Kalebarrenak, plazatik zubiraino, noranzko bakarra izango du; frontoi bidea, plazatik Sagastira doan bidea eta Sagastitik Buztinzurira doan kale berria ere noranzko bakarrekoak izango dira.

Oraindik ez dakite zein egunetan egingo dituzten aldaketak; lanak bukatzen dituztenean izango da hori. /AINTZANE IRIZAR

ESKORIATZA

Udalak Eskoriatzako Herria Ikerketa Beka plazaratu du

Udalak Eskoriatzako Herria Ikerketa Bekarako deialdia egin du. Bekaren funtsa da herriko argazki zaharrak bildu, inbentarioa egin, katalogatu eta digitalizatzea. "Herriaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz arduraturik" plazaratu du laguntza. Interesatuek urriaren 11tik 26ra, Eskoriatzako alkateari zuzendutako eskaera orriarekin batera, curriculuma, lana nola egingo luketen adierazten duen memoria bat eta nortasun agiriaren fotokopia eraman beharko dituzte. Informazio gehiago, udaletxean. /Z.V.M.

ARAMAIO

Udala eta San Martin Eskola, Haur Hezkuntza zerbitzua jartzeko lanean

Aramaioko Udalak eta San Martin Eskolak Haur Hezkuntzaren zerbitzu osoa eman nahi dute datorren ikasturtean. Hau da, 0-3 urte bitarteko umeendako hezkuntza zerbitzua. Orain, 2 urtetik aurrerako umeendako zerbitzua eskaintzen du eskolak. Hala, Haur Hezkuntza zerbitzua bideratu ahal izateko leku egoki bila dabiltza eskola eta Udala.

BI PROIEKTU AUKERAN

Kontua da orain arte ikamika handia izan dutela Udalak eta eskolak Haur Hezkuntzarako lekua delaeta. Orain arte erakunde bakoitza bere kabuz ibili da Jaurlaritzarekin negoziatzen. Horren ondorioz, Haur Hezkuntza zerbitzuarendako hiru proiektu aurkeztu dizkiote Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. Hain zuzen ere, proiektuetako bat atzera bota zuen Jaurlaritzak, ez zituelako gutxieneko baldintzak betetzen. Gauzak horrela, orain Jaurlaritzak gainerako bi proiektuen artean erabaki beharko du. Eskolak proposatzen du eskolaren eraikinari itsatsita eraikin berria egitea. Eta Udalak eskolatik apur bat urrunago dagoen lokal bat egokitzea proposatzen du.

Kontua da, Udalaren esanetan, eskolaren proiektuak aurreikusitako aurrekontua gainditu egiten duela. Eskolak, berriz, dio dirulaguntzak eskatuz gero, posible izango litzatekeela proiektu hori egitea. Bestalde, eskolak Udalaren proiektua baztertu egin du, proposatutako lokala eskolatik urrun dagoelako. /U.M.

Zertzelada

Aramaioko Udalaren esanetan, San Martin Eskolak aurkeztu duen proiektuak aurreikusita zuten aurrekontua gainditu egiten du

ARRASATE

PSE-EEk dio alkateak ez duela gobernatzeko behar den aldarterik

Udal gobernuak, eta zehazki EAJ alderdiak, duen jarrera ez demokratiko eta iluna salatu zuen PSE-EEk prentsaurrekoan. Gainera-tu zuen gobernuak ez duela erakutsi elkarrizketarako borondaterik eta alkateak ez duela lortu gobernatzeko beharrezkoa den aldarterik. Salatu zuten PSE-EEren ekarpenak eta parte-hartzea baztertzeaz gain, EAJ alderdiak gai asko landu izan dituela gainerako alderdiekin berba egin barik. Ezta udal gobernu-kideekin ere, batzokian balego moduan.

Herriak gabezia handiak izaten segitzen duela ere salatu zuten. Bereziki garraio publiko eta ospitale duinen beharra nabarmendu zuten sozialistek.

U.M.

PSE-EEk Eskoriatzako Udalak onartutako mozioa gaitzetsi zuen.

ELGETA

Hiru informazio panel ipiniko dituzte Aixolako urtegirako bidean

Foru Aldundiaren dirulaguntzen bidez, herriko hainbat bide seinaleztatzeko aukera izango da aurki. Elgetan, Aixolarako urtegira doan bidean informazio panelak ipintzea erabaki dute. Guztira, hiru panel ipiniko dituzte: bat bidearen hasieran, beste bat Aixolan bertan eta hirugarrena Ermutik datozenek ikus dezaten, hango partean. Paneletan ibilbidearen krokisa, desnibela eta distantzia azalduko dira, besteak beste. Zehazteke dago noiz ipiniko dituzten panelok. /I.A.

GATZAGA

Gaztetxoendako antzezlana ikusgai bihar Trikuharri taldearen eskutik

Gatzagan hitzordu polita dute aste honetan inguruko gaztetxoek. Izan ere, 6 eta 12 urte bitarteko umeei zuzendutako antzezlana taularatuko du Trikuharri taldeak, 19:00etan, kultura etxean.

Antzezlanean, hurrengo egunean geografia azterketa duen mutiko baten istorioa kontatzen da. Ametsetan herrialdez herrialde ibiliko da, entzuleak munduan zehar bidaiaraziz. Igel bat du lagun Inaxitok, eta hainbat pasadizotan, bertsotan egingo dira elkarrizketak. /Z.V.M.

Gutunak

Agur, Alberto

Hutsune nabarmena somau dot aurtengo San Migeletan. Ez da astoik egon Murrukixo aurrien. Ezta rifa saltzaileik be. Murrukixo aurria jendez gainezka eta aldi berien hutsik somau dot jaixetan. Betegarri moruen, ikurrina eta krespoia, eta gainien Alberton argazkixa.

Sorretan itxi gaittu Albertok: Murrukixo, argazki taldea, Gorriña memoriala, karnabaletako ekintzak, ongi etorriak, mendiko astiak, erakusketak... hamaika fruitu emun dittu Albertoren urtetako txindurri lanak. Okurriru eta aurrera atara barik itxiko auen gauzaik itxi ete dau?

Eta egindako danak, herrixen alde; ez siglaik, ez interes pertsonalik eta ez bestelakoik. Bakotxa bere kolkuai begira bizi garen garai honetan, Albertok herri ekimenien sinisten auen eta herrigintzako langile nekaezina zan. Atxabalta eta atxabaltarron alde bizi guztian jardun dauen langilia. Apaltasun haundiz, inongo protagonismo barik, Atxabaltarroi ikaragarrizko erentzia itxi dozkun langilia.

Nire partetik, miresmenik haundixena, Alberto. Agur eta ohore zuri.

JON ANDER LOIDI (BILI)
Aretxabaleta

Klase politikoa; hipokrisia eta gezurrak

Hau zuk irakur dezazun nahi dut, Victoriano; zuk eta Bergarako udaletxean zure inguruan daukazun irizpide politiko propiorik gabeko lagun talde horrek. Ez natzaizu, demokratikoak omen zareten alderdiok, hobetsi eta mantentzen duzuen Udal osaketa antidemokratikoaz arituko; ez. Ez natzaizu zuen ezgaitasun politikoaz arituko; ez. Ez natzaizu, azken urteotan, bergararron ondasun publikoak kudeatzerako orduan erakutsi duzuen ezgaitasunaz arituko, ez. Ez naiz honetaz guztiaz arituko, aipatu gai hauetaz guztietaz jarduteko okasioak hamaika izaten direlako; okasioak maiz eskaintzen dizkidazu(e)lako.

Ez; oraingo honetan zuek dituzuen hainbat bertutetako bati buruz jardungo dut (bertute ugari duzue, eta aukeratzeko lanak ematen dituzue…): hipokrisiari eta gezurrari buruz alegia. Eta azaltzen saiatuko naiz; labur, ongi uler dezazun alegia.

Bergara pintadaz josita dago, zeinu politiko jakin bat duten pintadez (*gudarien borroka herriaren indarra, gora eusko gudariak, borroka da bide bakarra…*); eta bestelako pintadez (*puta, pok, callate niña!…*) eta graffitiz. Handia da, ordea, zuentzat, Bergarako ondareaz horren arduratuta omen zaudeten horientzat, mezu politikodun pintadak izatea "herria zaindu eta zabaltzen dutenei kalte handia egiten" dieten elementu bakarrak; eta noski, hauek ezabatu egin behar dira. Bergararen irudiaz horren arduratuta omen zaudeten gobernu batzordekideok, ordea, zuen hitzetan eta ondorengo ekintzetan garbi uzten duzue ez dela herri honen irudia zuei ardura dizuena, ez; hain zuzen ere, mezu politiko jakin bat kalean izateak ematen dizuela benetako ezinegona. Bestela zuk, Vitorianok, hala gobernazio buruak, esplika biezaie herritarrei zergatik diren mezu politikodun pintadak herri honetan ezabatzen diren pintada bakarrak. Itxura denez *puta, pok, te amo, niña que te calles!…* edo gisako pintadek eta herriko txoko eta bazter askotan ugari diren graffitiek ez baitute gure herriaren irudi "ona" zikintzen. Honenbestez, zuen prentsa oharrei, eta egitera horren ohituta zaudeten salaketei eta gaitzespenei, egiazkotasun apur bat eman iezaiozue, zuen ekintzen argitan, kaleratzen dituzuen gaitzespen idatziak (beste soluziorik aportatzeko gaitasunik ez eta), hipokrisiaz blai dauden idatzi errepikakorrak baino ez baitira. Beraz, ez zaitezte hipokritak izan; ezker abertzalea kaletik desagerrarazteko duzuen desioa errebindikatzeko ausardia izan ezazue, baina, arren; ez zaitezte patetismo politikoaren lokatzetan murgildu, bertan aztarrika denbora asko badaramazue ere.

Gezurrari buruz ere hitz bi; gezurretan ari zara, Victoriano, gezurretan ari zara gobernazio buru zaren Arrieta jauna Bergaran hormetan jartzen diren kartelek "hormak zikintzen dituztelako" kentzen direla argudiatzen duzuenean. Nola ulertu, bestela, zuek, Udalean mantentzen duzuen bazterketa politikoa salatzeko kaleetan jarri diren kartelak bakarrik kendu izana azken aste bi hauetan? Ez zaitez zu, Gallastegi jauna, eta zuek, udal gobernu batzordekideok, gezurretan ezkutatu. Egia izateko ausardia eduki ezazue, eta "dimisioak orain" kartelak ezabatzeko, zerbitzua esleitua diozuen CESPA enpresako beharginei agindu zuzena ematen diozuenean, ez zaitezte la zuen jarrera zuritzeko gezurretan babestu. Lehen esan dizu(e)dana errepikatzen dut: ezker abertzalea instituzio, kale zein komunikabideetatik desagerrarazteko bidean hartuta dituzuen erantzukizunak onar itzazu(e) publikoki, eta ez ezazue zuen politika baztertzailea bost xentimo ere balio ez duten gezurretan ezkutatu.

XABIER ARREGI IMAZ
Bergara

Gauzak argitze aldera

Orain arte udaleko taldeekin egin ditugun bileretan Elgeta Auzolanian taldekoon jarrera beti berdina izan da, hau da, Udal hauteskundeetan elgetarren botoek eman zuten emaitzaren arabera Udala osatzea: EAJ-EA: 3, Aralar: 3 Elgeta Auzolanian: 1. Hau aurrera eramateko bideak badaude borondatea izan ezkero, Lizartzan hasitako ereduari jarraituz EAJ-EAren laugarren zinegotziak dimititu eta haren ordez Auzolanianekoa jarriz.

Hasieratik EAJ-EAk ezezkoa eman zion bide honi; irtenbide bezala, Agenda 21 batzordea sortzearen ideia kaleratu zuen, eta Auzolanianeko ordezkaria EAJ-EAko zinegotziarekin batera batzorde honetako zuzendari kide izatea proposatu zuen, baita zinegotzi guztien dirulaguntzetatik zati bat Auzolanianeko ordezkariarentzat izatea ere.

Guk EAJ-EAk proposatutakoa "hartuko" dugu, tokatzen zaigunaren zati bat baita.

Azkenik, Elgeta Auzolanian Udaleko dinamikan murgildurik dago hainbat batzordetan parte hartuz, eta Agenda 21 batzordea sortzeko ahaleginetan ere bagabiltza, eskaria idatziz edo Plenoetan eginez, baina batzorde hori sortzea ez dago gure eskuetan.

ELGETA AUZOLANIAN
Elgeta

Urkuluko asfaltoa eta ekologia

Alarmismoak eta demagogiak ez dio laguntzen ez ekologiari, ezta Urkuluri ere. Zilegia da asfaltoaren aurka egotea, baina argumentatu gauzak hobeto. Kontua ez da nora begira dauden berdeak, baizik eta ea non dagoen gure artean kontzientzia ekologiko antolatu eta eraginkor bat.

Nik dakidala, pankarta batzuk jartzeaz gain, ezer gutxi egiten dugu gaur egun ditugun ingurumen-arazo larrien alde. Eta ez zait iruditzen Urkulun asfaltatzeko falta den zatia asfaltatzeak kalte egingo dionik ingurune horri. Aitzitik, bideari emango zaion erabilera, hori bai da kontuan hartzekoa. Aretxabaletako Udalak oso argi jokatu beharko du horretan.

Nire iritziz, bai Koruetan, bai Azatzan bertan, presara doan bidearen hasieran piboteak, hesi bat edo zerbait jarri beharko litzateke. Eta puntu horietatik aurrera, bizilagunek eta bide horietatik gora ondo arrazoitutako jardueraren bat dutenek soilik izan beharko lukete pasatzeko eskubidea. Gainerakook oinez. Gainera, gaur egun, teknologiak ahalbidetzen du autotik jaitsi behar izanik gabeko sistemak barrera edo hezi horiek zabaldu eta ixteko. Ez litzateke gaizki egongo bertan bizi direnek ahalik eta enbarazu gutxien izatea.

JUANJO PÉREZ
(ARETXABALETAKO ARALAR)
Aretxabaleta

Utzi bakean Eskoriatza!

Marixol Iparragirreren atxiloketen harira egindako kale bilkuretan Ertzaintzak erakutsitako jarrera bortitza, neurrigabea eta lotsagarria salatu nahi dugu. Mobilizazio baketsu baten aurrean erakutsitako jarrera probokatzailea lekuz kanpokoa izan da guztiz.

Domekan, arratsaldeko 7etan egitekoa zen manifestazioa bortizki eragotzi zuten eta bertan bildutako batzuk identifikatzen saiatu ziren. Hauen ezezkoaren aurrean, atxiloketa saiakerak hasi ziren, jipoiekin batera. Bi pertsona zauritu zituzten, eta bigarren pertsona bat atxilotzen saiatu ziren. Azken saiakeraren ondoren, kargak hasi ziren, herritarren artean izua eta inpotentzia sortuz. Kontuan izan behar da momentu horretan herriko plaza jendez gainezka zegoela, eta honek dakarren arriskua ez zutela kontuan hartu.

Astelehenean, bilkura informatiboa deitu zen, bezperako gertaera larriak aztertu eta atxilotuen, bereziki haurraren egoeraren berri emateko. Bilkurara bildutakoek, Ertzaintzaren antidisturbioen baimenaz, lurrean esertzea erabaki zuten. Bertaratutakoak identifikatzeko saiakerari ezezkoa eman ondoren, bortizki pertsona bat atxilotzen saiatu ziren. Furgonaraino arrastaka eraman ondoren, barrura indarrez sartzen saiatu ziren, eta jasandako tratu txarren ondorioz, atxilotuak konortea galdu eta lehen laguntzak ematera hurbildutako erizainei ere ez zieten lana erraztu. Pertsona hau larrialdietara eraman behar izan zuten identifikatu ondoren.

Gertaera larri hauek guztiak gogor salatu nahi ditugu. Orain arte guztiz baketsuak izan dira gure herrian egindako elkarretaratze guztiak, eta aurrerantzean ere horrela izatea nahiko genuke. Horregatik Ertzaintzari eskatu nahi diogu bakean uzteko gure herria.

Bukatzeko, gure elkartasuna adierazi nahi diogu Marixoli eta atxilotutako guztiei, baita hauen senitartekoei ere.

ESKORIATZAKO ASKATASUNA
Eskoriatza

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Duela hiruzpalau urte egin zuen Arizmendi ikastolak eskaera Kilometroak antolatzeko, eta hark antolatuko du datorren urteko Gipuzkoako ikastolen festa. Badituzte logotipoa eta leloa, eta lantaldeek lanean dihardute.

OIHANA ELORZA

OIHANA ELORZA

Agurtzane Elkoro

KILOMETROAK 2005EKO ANTOLAKETA KOORDINATZAILEA

"Ikastola urruntzen ari da gizartetik eta berriro plazaratu nahi dugu Kilometroekin"

ZIRKUITUA ETA ABESTIA

"Lauzpabost zirkuitu posible ari dira aztertzen, eta urriaren 23an oinez egingo ditugu, bat hautatzeko. Abestia bailarako norbaitek egingo duela bakarrik dakit"

ARIZMENDI IKASTOLAREN HELBURUAK

"Handia izateak ez du esan nahi aberatsa denik. Beraz, helburu ekonomikoa garrantzitsuenetakoa da, baina badira beste batzuk ere"

Nola hasi zarete prestatzen Kilometroak 2005?

Apiril bukaeran hasi ginen, datorren urteko Kilometroak guk antolatuko dugula jakin eta berehala.

Kilometroak festa antolatzen laguntzeko badago organigrama antzeko bat. Guk, hala ere, geurera ekarri genuen hori eta geure aldaketak egin genituen. Arizmendik dituen 11 gunetan geure funtzionamendu eredua aurkeztu genuen, eta behin planteamendua onartuta, jendea batzen eta sailkatzen hasi ginen. Lau multzo nagusi sortu genituen: Kilometroak 2005 eguna bera antolatzeko taldea, baliabideena, urte guztiko ekintzak antolatzeko arte eta sormeneko taldea eta komunikazio taldea. Boluntarioek poliki-poliki eman dute izena eta bakoitzak aukeratu du zein lantaldetan egon nahi duen. Talde horrek autonomia osoa izango du antolaketarako, nahiz eta erabakiak batzar nagusira eramango diren. Dagoeneko 500 lagunek baino gehiagok eman dute izena lanerako, eta pozik gaude. Lantaldeak martxan daude. Orain Intranet sortuko dugu, lantaldeak hobeto koordinatu eta lan egiteko. Gainera, Gipuzkoako ikastola elkarteko bi ordezkari gurekin izango dira laster guztia antolatzen laguntzeko.

Nortzuek osatzen dituzte talde horiek?

Bertako ikasle, irakasle, ikasle ohi eta gurasoek. Ikasleak motibatzea edo ilusionatzea errazagoa da, baina guraso askok eman dute izena. Baita herritar askok ere.

Zein fasetan dihardute lantaldeok?

Arte eta sormeneko taldea, kirolekoa eta zirkuituarena ari dira, batez ere, lanean. Azaroa bukatu baino lehen, urte guztiko ekitaldiak jasoko dituen egitaraua prestatu nahi dugu, eta horretan ari dira. Zirkuitu taldeak ere abendurako aukeratuko du Kilometroak 2005eko zirkuitua. Momentu honetan lauzpabost zirkuitu posible aztertzen ari dira.

Leintz bailara osoa zeharkatuko du zirkuituak?

Gipuzkoako ikastolen elkarteak oinarri batzuk jartzen ditu. Adibidez, ez da herriaren erdigunean egongo, ezin du aldapa handirik eduki, monumentu artistiko historikoetatik pasa behar da, paisaia erakargarria izan behar du, eta garraioarendako sarbide egokiak eduki behar ditu. Gainera, zortzi-hamar kilometro artean izan behar ditu eta espazio zabala duten sei-zazpi gune sartu behar dira kilometro horietan. Zirkuituak aterpeak izatea ere garrantzitsua da, euria egiten badu ere.

Zirkuituaz arduratzen den lantaldea hegazkinetik hartutako plano batzuekin hasi zen lanean. Urriaren 23an, oinez egingo ditugu proposatzen dituzten lauzpabost ibilbideak. Gurekin batera, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko koordinatzailea eta segurtasunaren arduraduna ere etorriko dira zirkuituak ikustera.

Logotipoa eta leloa aukeratuta dituzue dagoeneko.

Bi logotipo eta beste hainbeste lelo aurkeztu zituzten eta botazio bidez aukeratu genuen. AZK taldearenak dira. Arizmendi eta AZK elkartuta egon gara beti, Kilometroak egiteko asmoak zeintzuk diren azaldu genien, eta eurek egin zituzten logotipoa eta leloa.

***Plazara* da leloa. Zer plazaratu nahi duzue?**

Arizmendi 11 gunetan dago banatuta. Duela bost urte hasi zen Arizmendi elkartzeko prozesua, baina oraindik falta zaio ikasle, irakasle, guraso eta guneen arteko mestizaia. Eta elkartzea lortu nahi duten pertsonak edo proiektuak islatzen ditu logotipoak, guztiak batzen doaz Arizmendi bat eta bakarra sortzeko.

Bestetik, ikastola plazaratu nahi dugu. Ikusten genuen ikastola urruntzen ari dela gizartetik edo gizartearen beharretatik. Lehengo ikastolaren zentzua, irudia, galdu egin dela iruditzen zaigu, eta guk ikastola plazaratu nahi dugu. Herrietako askotariko proiektuetan eta gizartearen eskakizunetan parte hartu nahi dugu. Horixe plazaratu nahi dugu.

Eta zein da helburu ekonomikoa?

Punturik garrantzitsuenetakoa da helburu ekonomikoa, lehenengoa akaso. Kilometroak festa diru iturri bat da eta Arizmendik aprobetxatu egin behar du hori. Inbertsio handiak egin ditu azken urteotan Leintz bailarako ikastolak, baina beharrezko inbertsioak izan dira. Ez du estalitako igerilekurik edo antzokirik egin. Arizmendik eraikinak egin ditu, eskaerari erantzuteko erabiltzen ari garen eraikinak. Handia izateak ez du esan nahi aberatsa denik; hori ez da hiruko erregela.

Askoren ustea da Arizmendik ez duela behar ekonomikorik.

Seme-alabek eta gizarteak berak eskatzen dituzten beharrei erantzuteko egin ditu inbertsioak Arizmendi ikastolak, eta inbertsio horiei aurre egin behar zaie. Dirua ez dator zerutik, eta Kilometroak 2005ek inbertsioei aurre egiten lagunduko digu.

Beste zein helburu dituzue?

Berrikuntza eta hobetze proiektuak dira beste helburu batzuk. Lantaldeak sortu ditugu, baina ez bakarrik Kilometroak 2005 antolatzeko. Datorren urteko urriaren 2aren ostean ere lantalde horiek lanean jarraitzea nahi dugu. Bai, behintzat, talde batzuek. Adibidez, arte eta sormen, kirol eta komunikazio taldeetatik proiektu berriak sortzea; horien lanak jarraipena izatea, alegia.

Bestalde, Lanbide Heziketa nahiko berria da Arizmendin, eta indartu egin nahi dugu.

Beste helburu bat da Iparraldearekin eta Hegoaldearekin elkartruke programa bat egitea. Oraindik ez dakigu nolako elkarlana izango den; izan liteke sormeneko proiektua, esparru zibiletik sortua, hezkuntzarekin lotutakoa edo beste edozein proiektu. Ez dugu oraindik ezer zehaztu, baina denondako ona izango dena aurkituko dugu.

Noiz entzungo dugu Kilometroak 2005eko abestia?

Hori ezin dizut oraindik esan. Lantalde bakoitzak autonomia osoa du bere lana egiteko, eta lantaldeak erabakia hartu arte ezin dugu ezer esan. Leintz bailarako talde edo bakarlari batek egingo du, hori bai, baina ez dakit gehiago.

Lehenengo produktuak laster jarriko dituzue salgai, ezta?

Otarrak, metxeroak eta laguntza pegatinak astebete barru hasiko gara saltzen, gutxi gorabehera. Eta urria bukatu baino lehen, arropak saltzen hasiko gara.

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan denda bana jarriko dugu arropa saltzeko. Gipuzkoako gainontzeko herrietara irteerak egingo ditugu: festak, azokak eta bestelako ekitaldiak aprobetxatuko ditugu materiala saltzeko. Salmenta lantaldea lanean da dagoeneko, eta astebururo irteera bat egingo dute.

Zarautz eta Orioko zer gordeko zenuke Leintz bailararako?

Egin zuen eguraldi ona eta joan zen jende pila. Izugarri harritu ninduen 10:00etarako horrenbeste jende ikusteak.

Haiek zirkuituarekin izan zituzten arazo handienak; guk, akaso, garraioarekin eta aparkalekuekin izango ditugu. Aurkituko dugu arazorik ez sortzeko modua, hala ere. Guk ez dugu trenik; beraz, autoak eta autobusak etorriko dira, eta horiendako irtenbidea aurkitu behar dugu. Agian, horrexek eskatuko digu lan handien, baina aurkituko dugu modua.

Zein da hurrengo pausoa?

Hasierako ideiak eta asmoak garatzen doaz, eta ideia horiek paperera pasatzeko fasean gaude; hau da, ditugun asmoen artean zer egin eta zer ezin dugun egin eta zergatik. Azkeneko fasea izango da zenbakiak ikusi eta diru horrekin zer egin daitekeen erabaki.

LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA



Ahaztu zaitez depilazioaz

Ezagutu laserraren atsegina

365 EGUN

Lirain, Bailaran laser plataforma duen zentro bakarra

YAG

Barizeak eta Kuperosis aurkako tratamenduak (medikuarekin)

Fotodepilazioa.IPL

Azkarra eta emaitza onak

ALEJANDRITA

Gaztaina koloreko ilearentzat aproposa

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE. HASIERAKO FROGA DOAN.

Debagoieneko estetika-gunerik haundiena.Teknika eta tresneria aurreratuenak zure esku.

Bixente Ferrer, 1 20500 ARRASATE Tel: 943 79 52 17

GAZTE IKASTAROAK



Grafologia: nola idatzi, hala izan

- **Irakaslea:** Irune Ibarra
- **Egutegia:** azaroaren 3tik 24ra
- **Noiz:** asteazkenetan
- **Ordutegia:** 18:00etatik 20:30era
- **Matrikula:** 20 € / 10 € ikasle eta langabeentzat

Txerri dantza: Euskal dantzak

- Lore Gazteak taldearen eskutik
- **Egutegia:** urriaren 22tik abenduaren 17ra
- **Noiz:** ostiraletan
- **Ordutegia:** 19:00etatik 20:15era
- **Matrikula:** 10 €

Perkusio ikastaroa

- **Irakaslea:** Iñaki Bruña
- **Egutegia:** urriaren 18tik abenduaren 20ra
- **Noiz:** astelehenetan
- **Ordutegia:** 18:00-19:30 hastapen maila eta 19:30-21:00 sakontze maila
- **Non:** Gazteluondo ikastolako aretoan
- **Matrikula:** 20 € / 10 € ikasle eta langabeentzat

INFORMAZIO ZABALAGOA: GAZTE BULEGOA • 943 77 00 65 • ***gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net***

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila

Eztanda taldea Kantabrian bigarren

Bergarako paint-ball taldea txapeldunorde izan berri da Kantabriako Ligan

XABIER URZELAI

Eztanda paint-ball taldeak emaitza ezin hobeak izan ditu txapelketetan esku hartu duen lehenengo urtean. Martxoan Santanderko Txapelketan onenak izan ziren, eta orain, Kantabriako Ligan txapeldunorde izan berri dira.

Eztanda taldeak Torrelavegan, Potesen eta Santanderren jokatu ditu Kantabriako Ligako hiru jardunaldiak, eta hiruretan egindako lanari esker izan dira bigarrenak. Eztandako kide Eukeni Barkero bergararrak azaldu dizkigu txapelketaren nondik norakoak: "Lehenengo jardunaldia Torrelavegan jokatu genuen, eta gogor hasi ginen. Bederatzi norgehiagokatik bi baino ez genituen galdu, eta bigarren postuan sailkatu ginen. Potesen ere txapelketa polita egin genuen, eta han ere bigarren izan ginen. Joan den asteburuan Santanderren jokatu genuen azken jardunaldian, baina ez ginen aurrekoetan bezain fin ibili, eta bosgarrenak izan ginen. Hala ere, aurrekoetan lortutako puntuei esker, bigarren postuari eutsi genion".

EZTANDA TALDEA

Eztanda taldeko kideak, ezkerretik eskuinera, David, Eukeni, Raul, Mikel eta Eunate.

Eztandako taldekideak orain dela urtebete hasi ziren paintballa praktikatzen, eta urte honetan hainbat txapelketatan izan dira, eta maila polita erakutsi: "Hasi eta berehala Santanderko Txapelketa irabazi genuen, eta horrek jarraitzera animatu gintuen". Kirol horretan ondo moldatzeko zer behar den ere azaldu digu Eukenik: "Nik talde lana azpimarratuko nuke, taldekideekin komunikatzen jakitea, eta nori eraso egin behar diogun argi izatea. Guk euskaraz egiten dugu berba, eta kontrarioek ezin dute igarri zer egin behar dugun. Eurek, baina, euren artean berba egiteko kode modukoak erabiltzen dituzte".

BABESLE ETA ORDEZKARIAREKIN

Eztanda taldeak Eklipse dendaren babesa dauka, eta horrez gain, ordezkaria daukate Galizian: "Orain, negua datorrenez, ez gara horrenbeste txapelketatan izango eta entrenatzen ibiliko gara. Ez dakigu hurrengo txapelketa noiz izango den, hori ordezkariak esango digu".

Babeslea izanda ere, taldeak diru laguntzak behar ditu: "Kirol garestia da, eta gainera kanpora joan behar izaten gara. Malagan txapelketa bat dago aurki, baina hara ezin gara joan, ez daukagu eta horretarako dirurik". Gainera, pinturazko bolak ez dira batere merkeak: "Bi mila boladun pakete bakoitzak 60 euro inguru balio ditu, eta jardunaldi bakoitzean 16.000 bola inguru erabiltzen ditugu, atera kontuak".

Eukeniren esanetan, zaila da paint-ballean aspertzea: "Guztiei gomendatzen diet, oso kirol ikusgarria da-eta".

Kirolabur

IKASTAROA/SPINNINGA

Eguaztenean, hilaren 13an, spinning ikastaroa egingo dute Oñatin. Ikastaroak lehen mailako monitore titulua eskuratzeko balioko du. Klaseak goiz eta arratsalde egingo dituzte. Debagoieneko kirol zerbitzuetako bazkideek 45 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek 54 euro. Informazio gehiago zuen herriko kiroldegian.

IKASTAROA/PATINAJEA

Bergaran patinaje ikastaroa egingo dute urriaren 16tik abenduaren 4ra arte. Ikastaroa 16 urtetik gorakoendako da, eta bi maila jarriko dituzte: hastapenekoa eta hobekuntzakoa. Debagoieneko kirol zerbitzuetako abonatuek 20 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek 24 euro. Informazio gehiago zuen herriko kiroldegian.

DEBAGOIENA/FUTBOLA

Aretxabaletak eta Aloña Mendik derbia jokatuko dute asteburuan. Norgehiagoka Ibarra futbol zelaian izango da, domekan, 16:00etan. Mondrak Anaitasunaren kontra jokatuko du zapatuan, 16:30ean, Atxabalpen. Azkenik, Ordiziaren zelaira joan beharko dute bergararrek zapatuan, 16:00etan.

RENAULT
AUTOBERRI
San Andrés auzoa, 8 • Tel. 943 71 24 72 • ARRASATE

BIDAIA HANDIAK

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU

Irteerak
BILBOTIK

PUERTO RICO 5 egun / 4 gau

H. MIRAMAR TURISTA H.	HG	982
HYATT DORADO BEACH LUXUZKOA H.	OB	1.173

INDIAKO ESENTZIA 8 egun / 6 gau

BISITATZEKO: DELHI, JAIPUR (AMBER), FATEHPUR SIKRI Y AGRA.

A MAIL HOTELAK	HG	987

AEBak & KANADA

EKIALDEKO HIRUKIA 9 egun / 7gau

BISITATZEKO: NEW YORK, TORONTO, NIAGARAKO UR-JAUZIAK, WASHINGTON DC Y PHILADELPIA.

1 MAIL / TUR HOTELAK	OB	1.100

NUEVA YORK 8 egun / 7 gau

PENSYLVANIA TURISTA H.	OB	1.126

NUEVA YORK ETA ORLANDO 6 egun / 4 gau

TURISTA HOTELAK	OB	1.233

NUEVA YORK ETA MIAMI 6 egun / 4 gau

TUR / TUR SUP HOTELAK	HG/OB	1.251

COSTA RICA

COSTA RICAKO KONTRASTEAK 10 egun / 8 gau

BI PERTSONARENTZAKO ALOKATUTAKO AUTOA BARNE DAGO. 2 GAU SAN JOSEN, 2 GAU TORTUGUERON, 2 GAU ARENAL SUMEDIAN ETA 2 GAU MONTEVERDEN.

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	HG/MO	1.312

COSTA RICA KARTARA 10 egun / 8 gau

2 GAU SAN JOSEN, 2 GAU TORTUGUERON, 2 GAU ARENAL SUMEDIAN ETA 2 GAU MANUEL ANTONIO HONDARTZAN.

****/ *** HOTELAK	HG/MO	1.454

MALDIVAK 9 egun / 6 gau

LHOHIFUSHI 1ª H.	HG	1.359
PARADISE ISLAND SEMI LUXUZKOA H.	HG	1.535

BANGKOK

BANGKOK ETA CHIANG MAI 11 egun / 8 gau

4 GAU BANGKOKN ETA 4 GAU CHIANG MAIN.

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	HG	1.368

IPARRALDEKO TRIBUAK 13 egun

BISITATZEKO: BANGKOK, CHIANG MAI, PAI, MAE HONG SON ETA EMAKUMEEN TRIBUA.

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	HG	1.639

SEYCHELLES 8 egun / 6 gau

BERJAYA MAHE BEACH 1ª H.	HG	1.378
LE MERIDIEN BARBARONS 1ª SUP H.	HG	2.071

GUATEMALA ZIRKUITUAK 9 egun / 7gau

BISITATZEKO: GUATEMALA, LA ANTIGUA, IXIMCHE, LAGO ATITLAN, SANTIAGO, QUETZALTENANGO, HUEHUTENANGO Y CHICHICASTENANGO.

/* HOTELAK	HG	1.402

MEXIKO - YUCATAN 9 egun / 7gau

BISITATZEKO: MEXIKO HIRIA, MERIDA, UXMAL, KABAH, CHICHEN ITZA, CANCUN ETA MAIA ERRIBERA.

TUR SUP HOTELAK	OB/TGB	1.481

MAURIZIO UHARTEA 8 egun / 6 gau

LE MAURICIA 1ª H.	ME	1.544
LE CANONNIER 1ª SUP H.	ME	1.554

KENYARA IHESI 9 egun / 7gau

BISITATZEKO: NAIROBI, ABERDARES PN, NAKURU LAKUA/ELEMENTAITA ETA MASAI MARA.

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	MO/HG	1.557

PERU TRADIZIONALA 10 egun / 8 gau

BISITATZEKO: LIMA, AREQUIPA, COLGA ARROILA, CUZCO, INKEN BAILARA SAKRATUA ETA MACCHU PICCHU.

TUR / 1ª HOTELAK	HG	1.825

PATAGONIA ETA IGUAZUKO UR-JAUZIAK

14 egun / 11 gau

2 GAU IGUAZUN (UR JAUZIAK IKUSI), 3 GAU BUENOS AIRESEN (HIRIA IKUSI), 2 GAU USHUAIAN (SUAREN LURRALDEA PN IKUSI), 4 GAU CALAFATEN (PERITO GLAZIARA IKUSI).

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	HG	2.182



Irteerak Bilbotik, Patagoniara izan ezik (hauek Madrildik edo Bartzelonatik). Prezioak pertsonako logela bikoitzean eta aurretik aipatutako erregimenean, urriko irteera konkretuentzat bakarrik. Informazio gehiago gure bulegoetan. Karbuantearen igoera, tasak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: OB: Oatatua bakarrik; HG: Hotela eta gosaria; ME: Mantenu erdia; MO: Mantenu osoa y GB: Gutzia barne. Prezio zuzenak tipografiako akatsik egon ezean. **ESERLEKU MUGATUAK.**

BAL-001-MM

VIAJES IBERIA

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

902 108 108

viajesiberia.com

Goienka 2a

Egubakoitza / 2004ko urriaren 8a

Kultura eta aisialdia

Urriaren 8tik 15era

GOITB 04/05 PIZTEKO ARRAZOI ASKO

Ikasturte berrirako, inoizko apusturik handiena egin du GOITBk bere irudia modernizatu eta programazioa indartzeko, tarte berri eta erakargarriekin

Gustu eta adin guztiendako programazio erakargarria osatzeko ahalegin handia egin du GOITB Debagoieneko telebistak, eta horren emaitza da joan den astelehenean aurkeztu zuten eskaintza.

Bi dira nabarmendu beharreko aldeak: batetik, GOITBren irudi askoz modernoagoa, dekoratu berriekin. Izan ere, GOITBk ekoiztutako saio gehienek dute dekoratu berri hori, eta oso deigarria da, adibidez, *Berriak* albistegi saioak egin duen itxuraldaketa.

Bigarren alderdi azpimarragarria da parrilla bera: GOITBko betiko saioak eraberritu eta moldatu egin dira, berriak ere sortu dituzte, eta hori guztia borobiltzen da kanpotik ekarritako saio ezagunekin: horiek berriro ikusteko aukera izango dugu. Oro har, ikasturte berrian arrazoi asko ditugu GOITB pizteko.

DEBAGOIENEKO INFORMAZIOA, NAGUSI

Programazioari dagokionez, albistegiek jarraitzen dute izaten GOITBren eskaintzako apustu gogorrena. Arratsaldeko edizioaren ordutegia aldatu egin dute: 14:15ean hasiko da saioa, eta ez 14:30ean. Hiru aurkezle txandakatuko dira albistegiko aurpegi izateko. *Behazulo* erreportaje eta aisialdi saioa, *Debarri* gaurkotasuna lantzeko, *Ilunpean* elkarrizketa saioa eta beste hainbat ikusteko aukera dugu.

Berritasun moduan, umeendako tarte berria zabaldu du GOITBk: egunero izango da marrazki bizidunetako telesail bat, eta asteburuan, animazioko film bat emango dute. Eta lehen beste kate batzuetan ikusi izan genituen saioak gogoratuko ditugu: *Bi eta bat* komedia, eta *Oinak izarretan* eta *Ofizio Zaharrak* dokumentalak. /14

LEIRE KORTABARRIA

AZALA: IÑAKI ITURBE / ARGAZKIA: AMAGOIA LASAGABASTER

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko urriaren 8a

TELEBISTA/ GOITB-REN PROGRAMAZIO ETA IRUDI BERRIAK

GOITB, inoiz baino indartsuago

SAIO BERRIAK DITU, BAI ETXEAN EGINDAKOAK, BAITA KANPOTIK EKARRITAKOAK ERE, ETA ASKOZ ERE IRUDI MODERNOAGOA

LEIRE KORTABARRIA

Umeendako telesail eta filmak, dokumentalak, Debagoienean eta debagoiendarrendako egindako saio indartuak, aurpegi berriak, dekoratu modernoagoak… Horiekin guztiekin, GOITB ibarreko telebistak inoiz baino eskaintza indartsuagoa aurkezten digu aurten.

GOITB Debagoieneko telebistak inoizko apusturik handiena egin du bere parrilla indartzearen eta eraberritzearen alde. Horren emaitza da etxean, GOITBn, zein kanpoan egindako saio erakargarriak, adin guztietako ikusleendako. Lehenengo aldiz, kanpoan egindako saio ezagunak eskainiko ditu GOITBk modu jarraian, Euskal Telebistan emititu ziren telesail eta dokumentalak, hain zuzen ere; eta lehenengo aldiz baita ere, ume debagoiendarrek eurendako saioak ikusteko aukera izango dute. Txikienen saioak egunero-egunero izango dira, baita aste bukaeretan ere.

Baina etxeko produkzioa ere bereziki zaindu nahi izan du GOITBk oraingoan. Saio berri batzuk egongo dira, eta lehen zeudenak indartu eta moldatu egin ditu telebistak. Informatiboek protagonista izaten jarraituko dute. Eta hori bai, itxura berria da aldaketa garrantzitsuenetako bat, dekoratu berriekin. Horrela, GOITBk irudi askoz modernoagoa du orain.

Programazio berria hasi da dagoeneko: joan den astelehenaz geroztik dugu betiko saioez zein berriez gozatzeko aukera. Etenaldi txiki bat egongo da datorren astelehen eta martitzenean, zubia dela eta. Egun horietan, ibarreko jaien gaineko saioak eta, kirolzaleendako, UDA-Aloña Mendi futbol derbiaren emanaldia egongo dira.



GOITB

Oihana Elorza, *Ilunpean* elkarrizketa saioko aurkezlea.

GOITB

Amagoia Lasagabasterrek Danbaka lehiaketa aurkeztuko du.

LEHENGO SAIOAK ETA SORTU BERRIAK

Debagoieneko informazioa da parrillaren ardatza. *Berriak* albistegiak egunean bi edizio izango ditu: 14:15ekoa eta 20:00etakoa; 15:45ean eta 22:00etan ere baduzue ikusteko aukera. Oihan Vegak eta Julen Iriondok aurkeztuko dute arratsaldean, eta Deiane Arrietak, iluntzean. Horrekin batera, *Gaurkoak* saioak jarraituko du, eguneko albisteen gainbegiratua iruditan.

Informazio alorrean, *Behazulo* saioak ere tarte nabarmena izango du. Eguenetan izango dugu hitzordua Goiatz Arana kazetariarekin, intereseko gai jakin batean sakondu nahiz asteko kultura edo aisialdi hitzorduak jakiteko, beste tarte batzuen artean.

Ibarreko gaiak eta protagonistak nagusi izango dira baita beste honako saioetan ere: batetik, *Debarri*. Hamabostean behin, Alberto Gorritiberea kazetariak ibarreko alkateekin elkarrizketak eta Debagoienaren inguruko monografikoak aurkeztuko ditu. Bost monografikok osatzen dute hasierako eskaintza. Martitzenean baita ere, hilean behin mahai-inguru bat eta *Erakusleiho* erreportaje saioa izango dira. Bestalde, abendura bitartean, Amagoia Lasagabasterrek Danbaka musika lehiaketako emanaldiak aurkeztuko ditu, Elgetako Espaloia antzokitik.

Zer esanik ez informazioaren alor garrantzitsu bat kirolena dela, eta horiek sakon lantzen jarraituko du Julen Iriondok.

GOITB

Julen Iriondo eta Deiane Arrieta, informatiboko dekoratu berrian.





GOITB

ETBko honako saioak ikusi ahal izango ditugu: *Animalikeriak, Bi eta bat, Ofizio zaharrak* eta *Oinak izarretan*.

Astelehen iluntzeetan, asteburuko kirol gertakizunen gainbegiratua eta tertulia gidatuko ditu. Azkenik, egubakoitzetan, Oihana Elortzak Euskal Herriko pertsonaia aski ezagun batengana hurbiltzeko aukera emango digu *Ilunpean* elkarrizketa saioan.

MARRAZKI BIZIDUNAK

Orain arte ez bezala, GOITBko eskaintza kanpoan ekoiztutako saioek borobilduko dute. Lehenengo aldiz, ibarreko txikienek marrazki bizidun telesailak dituzte: astelehen, eguazten eta egubakoitzetan, *Kalimero* txitaren gorabeherak eta martitzen eta eguenetan, aldiz, *Animalikeriak* telesaila, biok 13:50 eta 20:30ean. Zapatuan, *Kalimero*-ren atala errepikatuko da, eta domekan, *Animalikeriak* telesailarena, biak ere eguerdi partean.

Horrez gain, aste bukaeretan, animaziozko film bat ikusteko aukera izango dute txikienek: zapatuan, 14:30ean eta domekan, 11:00etan eta 16:00etan. Asteburu honetan, esaterako, *Kalabaza tripontzia* emango dute.

Lehen Euskal Telebistak emandako saioak gogoratzeko modua dugu. Debagoiendar askok gustura barre egingo zuten *Bi eta bat* telesailarekin, eta orain ere *Joxe Lontxo* eta konpainiaren xelebrekeriak ikusteko parada dago, eguaztenetan, 21:30 eta 23:00etan, eta eguenetan, 15:15ean. Dokumentalak ere izango dira: hasteko, *Oinak izarretan* Iñurrategi anaiek egindako dokumental sorta, eguen gauetan, eta *Ofizio zaharrak*, egubakoitzean. Horiek bukatzean, beste telesail batzuk eskainiko ditu GOITBk.

MUSIKA/ DEBAGOIENEKO MUSIKA LEHIAKETA

Danbakarako sarrerak salgai

GOIENKARIA

Gaurtik aurrera eskura daitezke Danbaka musika lehiaketako zuzeneko saioak ikusteko sarrerak. Interneten, *www.gaztekutxa.net* gunean eskura daitezke sarrerak euro baten truke, hau da, emanaldi egunean Elgetako Espaloia antzokian baino bi euro merkeago.

Debagoieneko I. Musika Lehiaketako antolatzaileek, Goienak eta Espaloia Kafe Antzokiak, Kutxarekin akordioa egin dute. Akordio honi esker, zuzeneko emanaldietarako sarrerak eskuratzeko moduak erraztu eta sarrerak merkatu nahi dituzte. Hortaz, gaurtik aurrera salgai daude sarrerok Interneten.

ZELA ESKURATU?

Oso erraza da sarrerak eskuratzea. Horretarako, Gaztekutxa txartela eduki behar da. 30 urtetik beherakoek eduki dezakete txartel hori eta doan eskura daiteke. Nahikoa da Kutxako bulego batera joan eta han eskatzea. Gainera, txartela egiteagatik bi sarrera oparitzen dituzte.

Txartela dutenek eta Danbaka lehiaketako kontzertuetarako sarrerak erosi nahi dituztenek, ostera, *www.gaztekutxa.net* edo *www.goiena.net* guneetan sartu eta erosi ahal izango dituzte. Sarrera bakoitza euro baten truke eros daiteke, eta sei kontzertuetarako abonua, 6 eurotan. Gaztekutxako txartelik ez dutenendako abonuak ere salduko dira Espaloian 15 euroren truke.

Argi dago, hortaz, askoz merkeagoa ateratzen dela sarrerak Internetez erosiz gero. Gaurtik aurrera eros daitezke.

EGUAZTENEAN AMAITZEN DA EPEA

Bestalde, antolatzaileek erabaki dute lehiaketara aurkezteko epemuga luzatzea. Dagoeneko talde ugarik eman dute izena, baina beste batzuek eskatu dute asteburu luze hau aprobetxatu ahal izatea abestiak grabatzeko. Hori horrela, antolatzaileek erabaki dute lanak aurkezteko epea datorren eguaztenera arte, hilak 13, zabaltzea. Lehiaketan parte hartuko duten talde guztien zerrenda *Asteleheneko Goienkaria*-n argitaratuko da urriaren 18an. Lehiaketa urriaren 22an hasiko da.

AUTOBUSAK ELGETARAINO

Antolatzaileen helburua da ahalik eta jende gehien gerturatzea Elgetako Espaloira kontzertuak ikustera. Horregatik harremanetan dihardute Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Elgetara autoz joan ezin dutenendako, gazte jendearendako batez ere, bus zerbitzua jartzeko.

DISKOA, BATERIA ETA 1.000 EURO

Lehiaketa honek daukan berezitasunetako bat da Goienako hedabideek egingo dioten jarraipena. Azpimarratzekoa da, era berean, emango dituen sariak: batetik, diskoa eta, bestetik, bateria bat eta 1.000 euro instrumentuetan gastatzeko.

4x4
aukera zabalena

Saltzeko eta erosteko
•
Nahi duzun modeloa ez badaukagu, bilatu egingo dizugu
•
Ia berriak eta bigarren eskukoak (bost urte baino gutxiagokoak)

4QUATTRO4

ZABALDU BERRIA!

4QUATTRO4
Aukerako 4x4 ibilgailuak
Musakola auzoa 21 (Roneo parean)
ARRASATE

Tel.: 605711576
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko urriaren 8a

Urriak 8-15

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

IKASTAROAK

BERGARA

► **Helduen eta umeen bertso eskolak** antolatu ditu Jardun euskara elkarteak. Biek ere hasi berri dute ikasturtea. Helduen eskola eguaztenetan da, Harrizuriagan, 20:00etan; umeena, eguenetan, 18:00etan. Izena emateko, deitu 943 76 36 61 telefono zenbakira.

► **Patinaje ikastaroa** antolatu du Udal Kirol Sailak urriaren 16tik abenduaren 4ra bitartean. Izenemate epea urriaren 14an bukatuko da. Hastapen eta hobekuntza mailak landuko dituzte. Izena emateko, deitu 943 77 91 67 telefonora edo idatzi *kirolak@bergara.net* helbidera.

DEBAGOIENA

► **Internet bidezko Hizkuntza Plangintza ikastaroa** deitu du Eusko Ikaskuntzako Asmoz fundazioak. Izenemate epea zabalik dago urriaren 15era arte. Argibideetarako, deitu 945 23 34 20 telefonora (galdetu Amaia Lasagabasterregatik) edo bidali mezu bat *hiznet@asmoz.org* helbide elektronikora.

ELGETA

► **Buztingintza ikastaroa** emango du Pili Arin bergararrak urriaren 19tik azaroaren 30era bitartean, Txirikil eta Goibeko taldeek antolatuta. 12 urtetik gorakoei dago zuzenduta, eta Espaloian izango da, 19:00etan.

ESKORIATZA

► **Bi Internet ikastaro** izango da datozen egunotan KZGunean: bata, Internetez postalak bidaltzen ikastekoa, hilaren 11n, astelehena, 11:00etatik 13:00etara; bestea, Interneteko eztabaida foruen gainekoa, urriaren 14an izango da, eguena. Ikastarook doan dira.

► **Oinarrizko sukaldaritza ikastaroa** deitu du Amuska emakume taldeak urritik urtarrilera bitartean, 18:00-20:00. Amuskako bazkideek 20 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek, berriz, 26. Argibideetarako, jo kultura etxera.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Debagoieneko Gazte Asanbladek** topaketa egingo dute gaur, egubakoitza, Antzuolan. Parte-hartzaileek elkarrekin afalduko dute.

ARAMAIO

► **Zuiako koadrilan** Dorretxeen eta Ur-jauzien ibilbideak egiteko aukera dago etzi, domeka. Egun osoko ibilbidea da. Izena emateko azken eguna bihar da, zapatua. Interesatuok 945 14 55 99 telefono zenbakira deitu behar dute.

ARRASATE

► **Gaita eskolak** emango ditu Arrasate Musikalek, aurtengo berritasun moduan. Izenematea zabalik dago oraindik, akademian bertan, 17:00-21:00 ordutegian.

► **Literatura Solasaldiak** deitu ditu Udal Liburutegiak ikasturte berrirako, eta izenemate epea zabalik dago urriaren 15era arte, euskara zein gaztelaniako jardunaldietarako. Interesa dutenek Monterronera jo behar dute. Jardunaldiok 18:30etik 20:00etarako ordutegian izango dira, Monterronen.

► **Gipuzkoako Birako** Hondarribia-Donostia etapa ikusteko autobusak antolatu ditu Besaide elkarteak. Izenemate egunak urriaren 13a eta 14a dira, euren egoitzan (943 77 30 66 da telefonoa).

► **Nafarroa Oinezen inguruko** hainbat ekitaldi antolatu dituzte AED eta Portaloi elkarteek. Hilaren 14an, eguena, *Euskara Nafarroan: lehena, oraina eta geroa* hitzaldia egingo dute Mondragon hotelean, 19:30ean. Datorren egubakoitzean, hilak 15, Estella taldeak kontzertua eskainiko du.

► ***Nola zoriontsu izan barrua eta kanpoa zainduz*** delako zikloa antolatu du Ekin Emakumeak elkarteak. Emakumeoi osasuntsu bizitzen laguntzea du helburu. Izenematea urriaren 15era arte dago zabalik honako telefonoan: 651 70 79 36.

► **70eko kintoek (49an jaiotakoek)** batzarra egingo dute urriaren 16an. Meza izango dute San Frantziskon, 12:30ean, eta bazkaria gero, hostalean. Izena emateko, jo Lore edo Zabaleta lurrindegietara.

BERGARA

► **Jolasleku ibiltaria** Ariznoa kalean izango da gaur, egubakoitza, 17:00etatik 19:00etara bitartean. 6-12 urte bitarteko umeei euskaraz jolas egiteko baliabideak ematea da helburua. Jardun elkarteak antolatzen du.

► **Jai biziago batzuk** lortze aldera egin daitekeena eztabaidatzeko batzarra deitu du Herria Lanean taldeak hilaren 14rako, eguena, kultura etxean, 19:30ean.

► **Argazki-rallya** deitu du Pol-Pol Argazki Taldeak hilaren 17rako, eta izenematea zabalik dago euren egoitzan (Zabalotegi 5), 20:30-21:30 ordutegian. 10 euro ipini beharko da.

► **Mendi-azoka** izango da martitzenean, hilak 12, Elosu auzoan.

► **47an jaiotakoek** batera afalduko dute azaroaren 20an. Izenematea urriaren 13an itxiko dute. Horretarako, 45 euro sartu behar da Euskadiko Kutxako honako kontuan: 009.1.09901.9.

DEBAGOIENA

► **Igeriketa egokitu ikastaroak** antolatu ditu Mankomunitateko Kirol Sailak, eta izenematea zabalik dago. Horretarako, zuen herriko Udal Kirol Sailera jo behar duzue, udaletxean edo kiroldegian. Edozein urritasun mota dutenek parte har dezakete. Ikastaroak hil honetan hasiko dira. Matrikula da 13,15 euro edo 19,15 euro hileko, erabilpenaren arabera.

ESKORIATZA

► **Soledad Iparragirre *Anboto*** ustezko ETAko kidearen atxiloketa salatzeko eta argibideak eskatzeko kale-bilkura izango da gaur, egubakoitza, Herriko plazan, 19:00etan.

► **Kiroldegia goizez bakarrik** zabalduko dute astelehenean, hilak 11. Hain zuzen, 09:30etik 13:00etara bitartean bakarrik egongo da zabalik.

► ***Istripuen prebentzioa eta norberaren zaintza*** izeneko hitzaldia egingo du Ana Atienzak eguenean, hilak 14, udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, 17:00etan. Olazar erretiratuen elkarteak antolatu du.

► **II. Eskoriatzako Herria ikerketa beka** deitu du udalak. Helburua da herriko argazki zaharrak biltzea, inbentarioa egitea, katalogatzea eta digitalizatzea. 2.800 eurokoa izango da beka. Eskabideak Udal Kultura Sailean aurkeztu behar dira (Hidalga 1; 20.540, Eskoriatza). Urriaren 26a da parte hartzeko mugaeguna.

OÑATI

► **Bertso-bazkaria** egingo dute bihar, zapatua, Baserritarren elkartean, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariekin.

► ***Oñati, iragana, oraina eta geroa*** DVDaren emanaldia egingo dute urriaren 13an, eguaztena, kultura etxean, 19:30ean. DVDa bera salgai egongo da egun horretan, 10 eurotan. Turismo Bulegoan badago erosteko aukera dagoeneko.

ANTZERKIA

LEINTZ GATZAGA

► ***Inaxitoren ametsak*** izeneko bertso-antzerkia izango da gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan.

► KONTZERTUAK

JABIER MUGURUZAK EMANALDIA EGINGO DU ETZI ELGETAN

Kultur Errota egitasmoaren eskutik, Jabier Muguruza akordeoi-jole eta abeslariaren kontzertuaz gozatzeko parada izango da Elgetako Espaloia kafe antzokian. Muguruza babesten izango dira Txema Garces baxu-jotzailea eta Mikel Azpiroz, teklatuetan. 2003ko urrian aurkeztutako *Enegarren postala* diskoko abestiek, batik bat, osatuko dute Jabier Muguruzaren zuzeneko errepertorioa. Modu honetara, Euskal Herrian Muguruzaren beste emanaldi batez disfrutatu ahal izango dute zaleek; izan ere, musikari horren zirkuitua gero eta zabalagoa da eta Madrilen, Zaragozan, Andaluzian, Asturiasen eta, batez ere, Katalunian, arrakasta du lagun. Euskal musikagile onenetariko bat aitortu izan dute musika kritikariek.

Non: Elgetako Espaloia kafe antzokian. **Noiz:** etzi, urriak 10, domeka. **Ordua:** 20:00ak. **Sarrera:** 3 euro.

DESLAN FORMACIÓN

Software librean espezializatutako goi mailako ikastaroa

2004ko azaroaren 8tik 2005eko martxoaren 22ra

- **Iraupena:** 200 ordu
- **Ordutegia:** astelehenetik eguenera 18:45etik 21:45era
- **Nori zuzenduta:** informatika eta informazio teknologiekin zerikusia duten profesionalak eta informatikarekin harremana duten unibertsitate tituludunak.

Kolaboratzailea: alcanze Desarrollo y Formación Web

Informazio zabalagoa: Florida 17, 1. esk. 7. bulegoa. Vitoria-Gasteiz.
Tel.: 945 131 542 (09:00-13:00/16:00-19:00) Posta-e: info@deslanformacion.com

LEHIAKETAK

OÑATI

► **Ageriko II. Pintura Sariketa** deitu du Oñart Oñatiko Arte Taldeak etzirako, domeka. Euskarrioi zigilua ipintzeko, Oñarten egoitzara (kultura etxera) jo behar duzue domekan, 09:00-11:00. Lanak hantxe aurkeztu behar dira, 13:00-14:00. Sari nagusia da 500 euro.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Nafarroa Oinez jaialdian** Igor Etxabe zaldibiarrak erakutsitako argazkien erakusketa dago hilaren 17ra arte Harresi aretoan.

► **Soineko-eskultura** erakusketa prestatu du Melina Lopez arrasatear artista gazteak. XX. mendeko emakume artisten lanean oinarrituta daude lanok. Monterronen duzue ikusteko aukera.

BERGARA

► **Emakumeen eskulan** erakusketa zabalduko du Beke Bergarako Emakumeen Elkarteak hilaren 13an, eguaztena, kultura etxean. 20ra arte izango duzue ikusteko aukera, 18:00-21:00 astegunetan eta 12:00-14:00 asteburuan.

ELGETA

► **Pili Arin** eskultura egilearen lanak ikusteko aukera duzue Espaloia kafe antzokian azaro bukaerara arte.

ESKORIATZA

► ***Santa Ana auzoko urbanizazio proiektua*** izeneko erakusketa izango da urriaren 24ra arte, kultura etxean.

MUSIKA

BERGARA

► **SFDK eta RushPlac-Ka** taldeek emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Trapatoni eta Silikosis** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean. Ska estiloa lantzen dute biek ere.

► **The Phantom Limbs eta Sixteens** talde estatubatuarren emanaldia izango da martitzenean, hilak 12, gaztetxean, 20:30ean. Lehenak punka egiten du; bigarrenak, rock iluna.

Zinema

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

El secreto de los McCann
Egubakoitza: 22:30.

Osama
Astelehena: 22:30.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

La terminal
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Martitzena: 19:30.

Shin Chan 2 (euskaraz)
Domeka eta martitzena: 17:00.

Intermission
Eguena: 20:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

El bosque
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:30.
Martitzena: 19:30, 22:15.

Shrek 2
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.
Martitzena: 17:00.

La memoria de los peces
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

Los lunes al sol
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Fahrenheit 9/11
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Martitzena: 19:30.

21 gramos
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

El espantatiburones
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Mar adentro
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Mar adentro
17:30, 20:00, 22:30.

El bosque
16:30, 22:30.

Hellboy
17:30, 20:00, 22:30.

Antes del atardecer
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

El espantatiburones
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

El fuego de la venganza
17:00, 19:45, 22:30.

Hasta que la ley nos separe
18:30, 20:30.

Una chica de Jersey
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Mar adentro
17:30, 20:15, 22:45.

Shrek 2
17:15.

El espantatiburones
Egubakoitza: 16:45, 18:30, 20:30, 22:45.
Zapatua: 17:30, 20:15, 22:45.

La mejor juventud (J.B.A.)
16:30, 19:30, 22:30.

El bosque
17:30, 20:15, 22:45.

El mito de Bourne
17:20, 19:50, 22:35.

Diarios de motocicleta
17:15, 20:00, 22:30.

La terminal
17:30, 20:15, 22:45.

Fahrenheit 9/11
20:00, 22:30.

Kill Bill 2
17:15, 20:00, 22:30.

Young Adam
17:20, 19:50, 22:35.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Tiovivo
16:40, 19:30, 22:30.

Bombom, el perro
17:30, 20:00, 22:30.

Horas de luz
17:30, 22:30.

Primavera, verano, otoño, invierno… y primavera
17:30, 20:00, 22:30.

La calle de las tentaciones
17:30, 20:00, 22:30.

Diarios de motocicleta
17:30, 20:00, 22:30.

Roma
16:40, 19:30, 22:30.

El milagro de Candeal
20:00.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Garfield
16:10, 18:10, 20:10.

Hellboy
16:30, 19:20, 22:20, 01:00.

El bosque
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Escuela de seducción
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

El mito de Bourne
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

El fuego de la venganza
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Blind horizon
16:00, 18:20, 20:40, 22:45, 01:00.

El juego de la verdad
22:30, 00:45.

El espantatiburones
16:10, 18:15, 20:15, 22:40, 00:45.

Cuestión de pelotas
16:10, 18:15, 20:15, 22:30, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

El mito de Bourne
20:25, 22:40, 01:00.

Mar adentro
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:35.

Garfield
12:15, 16:30, 17:30.

El espantatiburones
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Hellboy
12:15, 17:30, 20:00, 22:30, 00:45.

Blind horizon
12:15, 16:30, 18:35, 20:40, 22:45, 00:50.

El fuego de la venganza
12:15, 16:00, 18:45, 21:45, 00:45.

El Álamo
12:15, 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

Una chica de Jersey
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 00:55.

El bosque
12:15, 16:05, 18:15, 20:30, 22:45, 00:55.

Hipnos
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

El juego de la verdad
20:20, 22:20, 00:20.

Hasta que la ley nos separe
12:15, 16:20, 18:20.

Horas de luz
12:15, 16:10, 18:20.

Cuestión de pelotas
12:15, 16:15, 18:10, 20:05, 22:00, 00:00.

Tiovivo
19:00, 21:45, 00:40.

La terminal
12:15, 17:15, 19:45, 22:15, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean, zapatuan eta astelehenean.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna.

■ **ÁBACO BOULEVARD**

Garfield
12:20, 16:15, 18:20.

Una chica de Jersey
12:10, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Mar adentro
12:00, 17:05, 19:40, 22:20, 01:00.

El espantatiburones
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

Hellboy
12:00, 16:30, 19:15, 22:15, 01:05.

La terminal
12:00, 16:20, 19:10.

El Álamo
12:00, 16:10, 19:00.

El mito de Bourne
12:20, 16:00, 18:15, 20:30, 22:50, 01:00.

Cuestión de pelotas
20:15, 22:25, 00:30.

El fuego de la venganza
12:10, 16:25, 19:20, 22:15, 01:10.

Escuela de seducción
22:10, 00:30.

El bosque
12:10, 16:00, 18:15, 20:30, 22:00, 22:45, 00:30, 01:00.

Hipnos
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:45.

Hasta que la ley nos separe
12:10, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, bakarrik domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

El bosque: ●●●● / ***21 gramos:*** ●●●● / ***Los lunes al sol:*** ●●●● / ***Kill Bill 2:*** ●●● / ***Shrek 2:*** ●●● / ***Mar adentro:*** ●●● / ***La terminal:*** ●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

OLVÍDATE DE MÍ

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Michel Gondry.
AKTOREAK: : Jim Carrey, Kate Winslet, Tom Wilkinson, Kirsten Dunst.

Olvídate de mí oso film nahasia da. Ez du ohikoa den logika-denbora erabiltzen, ikuslea saltoka doa, oraina eta iragana; errealitatea, oroitzapenak, eta ametsak; kontziente eta inkontziente munduak nahastu egiten dira. Hau dela-eta, istorio arruntak gustuko dituzten ikusleak, agian, aspertuta eta ia-ia haserre irten litezke zinema aretotik, eta ezohiko gauzak ikusi nahi dituztenek, ostera, Charles Kaufman-ek idatzitako istorioari interesgarriak diren tarteak aurkituko dizkiote. Kaufmanen gidoiak oso bereziak dira: *Cómo ser John Malkovich, Adaptation, El ladrón de orquídeas* eta *Human nature*, esate baterako, hark idatzitako gidoiak dira, eta film horiek ikusteko aukera izan duen ikusleak badaki *Olvídate de mí* ezin dela film arrunt bat izan. Kaufman-ek oso gustuko du gizakien buruan sartzea eta ideien eta sentimenen artean sortzen diren norgehiagokak erakustea. Hori dena kontuan harturik, istorioaren egitura nahiko kaotikoa da; amesgaiztoekin antz handia du. Askotan zentzurik ez duten ideiak eta eszenak nahasten dira, hainbat garaitako irudiak elkarrekin agertzen dira, itxuran ordena logiko bat erabili barik; horregatik, ikuslea

momentu askotan galduta dabil. Filmaren hasiera oso ondo dago, eta bukaerak istorio guztiari zentzu nahiko logikoa ematea lortzen badu ere, erdiko zati luzean galduegiak gabiltza, eta pazientzia behar dugu kontatzen ari zaigun istorioarekiko interesik ez galtzeko. Erdiko zatia gehiegi luzatzen denez, ikuslea zerbait asper daiteke.

Olvídate de mí nahiko konplexua eta bitxia da. Eta, agian, filma berrikustea beharrezkoa izango da bere benetako balioa zein den jakiteko: eszena, ideia, denbora eta espazioan gorabehera gehiegi daude, agertzen diren osagai eta burutazio guztiak sakontasuna duten edo horiek ikuslea harritzeko suziriak besterik ez diren baloratzeko. Dena den, ezin da proposamen honen originaltasuna ukatu, eta eskertzekoa da noizbehinka eskema logikoak apurtzen dituzten filmak eta istorioak aurkitzea.

ANTONIO ZABALA

ORAIN, ZINEMA IKUSTEKO AUKERA PREZIO MURRIZTUAN
ASTEKO EGUN GUZTIETAN
Moztu txartel hau, eta sarrerak prezio murriztua izango du, zuretzat eta zure lagunarentzat
BIKOTEKIDEA ZAIN DUZU
04/10/31ra arte baliagarria
SARREREN SALMENTA ServiCaixa 902 52 08 52 www.cinesabaco.com ÁBACO BOULEVARD
SARREREN SALMENTA ServiCaixa 902 51 44 51 www.cinesabaco.com ÁBACO LAKUA
ÁBACO ABACO-N, ZURE EDALONTZIAK SARIA DAUKA, SEGURU !
www.cinesabaco.com

KROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
- Zubiaurre 50 m². Berrituta.
- Martoko 85 m². Eguzkitsua.
- Arruriaga 45m². Berrizteko.
- Zubiaurre 45m². Berrituta.
- San Pedro 150m². Ondo.

Antzuola:
- Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Ondo kokatuta. Garajea aukeran.

PABILIOIA SALGAI
- Osintxu 660 m²

BASERRIAK SALGAI
- Elosun, Osintxun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.

LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI ETA ERRENTAN

DEBA GARAIA INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
- Erdialdea 86 m². Etxe berria.
- Martoko 60 m². Berrituta.
- Erdialdea 75m². Eguzkitsua.
- Erdialdea 90m². Oso ondo dago.
- Erdialdea 78 m². Berrituta.
- San Anton 67 m². Berrituta.
- Zubieta 70 m². Eguzkitsua.

ANTZUOLA:
- 11 etxebizitza berri.
- Beheko auzoa 60 m². Berrituta.

SORALUZE:
- 80 m².Berritua. Garajea eta txokoa.

BASERRIAK
- Angiozar 600 m² eta lursaila.
- Elosua 405 m² eta lursaila.

Bergaran salgai eta errentan:
Lokalak, pabilioiak eta garajeak

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 15 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARAMAIO
JATETXE BATEAN ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BURUETAN. 626 75 91 04

LORAMENDI KIROLAK
NESKA BEHAR DUGU DENDAN LAN EGITEKO. EUSKARAZ HITZ EGITEA, EZINBESTEKOA. INTERESATUOK, ETORRI ARRASATEKO SAN ANDRES AUZOKO DENDARA.

ARETXABALETA
SUKALDARI LAGUNTZAILEA BEHAR DA ASTE BURUETARAKO. 652 70 82 46

ARRASATE
ESPERIENTZIADUN ILE APAINTZAILEA BEHAR DA. OSO ONDO ORDAINDUA. 676 22 33 18

ARRASATE
JOSTUNA BEHAR DA DENDA BATERAKO. 943 77 13 85

BERGARA
ZERBITZARIA BEHAR DA TABERNAN LAN EGITEKO. ESPERIENTZIA ETA EUSKARA JAKITEA, DERRIGORREZKOAK. 637 51 33 24

ESKORIATZA
EUSKAL DANTZEN IRAKASLE BAT BEHAR DA. LAN KONTRATUA ESKAINTZEN DA. 943 71 49 95.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Angiozar. Baserria salgai. Etxeak 1.086 metro koadro ditu, eta horrez gain, baita lursailak ere, zuhaitz eta frutarbolekin. 626 35 60 89.

Aretxabaleta. Erdialdean. 80m². Hiru logela eta egongela. Dena kanpora begira. Bizitzen hasteko moduan. Deitu 17:00etatik 21:00etara. 627 34 92 27.

Aretxabaleta. Etxebizitza salgai. 49 m². Gela bi, egongela, sukaldea eta berogailua. 653 72 29 99.

Aretxabaletako erdigunean. 70 metro koadro ditu, bi gela, sukaldea, egongela, bainua eta trastelekua. Baita igogailua eta berogailua ere. 618 00 15 00.

Aretxabaletan etxebizitza berria salgai, Beroan. 286.374 euro. 616 87 34 35.

Arrasate. Etxebizitza salgai Zerrajeran. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta trastelekua ditu, guztira 110 metro koadro. Dena kanpora begira. 943 71 18 35 edo 609 06 66 79.

Arrasate. San Andresen etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Guztiz berritua. Berehala bizi izaten hasteko gertu. 943 79 18 36.

Aretxabaleta. Atikoa salgai. Beroan, estreinatu gabea. 75 metro koadro erabilgarri. Garajea ere badauka. 616 87 34 35.

Bergara. Basarte kalean, 88 metro koadroko etxebizitza salgai. Guztiz jantzita dago eta berogailu zentrala dauka. Eguzkitsua da. 943 76 32 95 edo 628 67 01 74.

Bergara. Etxebizitza salgai, Bolun. Hiru logela, bi bainu gela, sukaldea, egongela eta ganbara ditu. Berogailua eta PVC lehioak. Berrituta dago. 943 76 97 86.

Donostia. Grosen, Zurriolatik oso gertu. 120 m². Guztiz berritua. Bulegotarako egokia. 480.000 euro (80 milio pezeta). 620 28 39 16.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Bigarren solairua. Igogailua du. Deitu 19:00etatik 22:00etara. 645 71 76 25 edo 946 81 71 97.

Oñatin, San Lorentzo auzoaren goialdean. Lehenengo solairua da. 60 metro koadro ditu eta bi gela. Telefonoa: 653 74 30 75.

Soraluze. Berritutako etxebizitza salgai. 615 77 99 20.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Apartamentua errentan ematen da. Telefonoa: 605 71 37 77.

Arrasate. Erdialdean kokatuta. Hiru gela, bi bainu, egongela eta sukaldea. Eraikina nahiko berria da. Telefonoa: 646 65 08 07.

Arrasate. Ikasleendako etxebizitza emango nuke errentan Erguinen. Bost logela eta bi bainugela ditu. Telefonoa: 943 08 19 17.

Benidorm. Levante hondartzan, etxebizitza errentan ematen da. Bi logela. Garajea. 666 67 06 94.

Bergara. Martokon, etxe eguzkitsua. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna. Guztiz jantzita. PVCzko leihoak, gaseko berogailua. Telefonoa: 656 73 79 54.

Chiclana (Cadiz). Etxebizitza ematen da errentan. Leku ezin hobean. Hondartzatik oso gertu. Gauez deitu. Telefonoa: 627 29 46 39 edo 945 06 00 24.

Oñati. Ikasle edo irakasleei etxebizitza errentan emango nieke, Olakua auzoan, unibertsitatetik oso-oso gertu. Bi logela. 943 78 16 33.

Vera (Almeria). Apartamentua errentan naturista-gune baten. Jantzia. Igerilekua. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Errentan hartuko nuke etxe bat. 685 59 22 90.

Aretxabaletan etxe bat alokatuko nuke. 943 79 53 24 edo 647 60 69 00.

Bergara. Etxea hartuko nuke errentan Bergaran edo inguruetan. Andrea. Telefonoa: 943 76 04 67.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Maria Elena. 618 43 38 15.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxea osatzeko pertsona bat behar da. Unibertsitatetik 10 minutura. 605 75 72 37.

Eskoriatza. Etxebizitza osatzeko lagun baten bila gabiltzan bi langile gara. Ainara eta Eunate. Deitu telefono honetara: 675 71 16 93 edo 659 83 63 86.

Eskoriatza. Logela errentan ematen da baserri batean. 943 58 50 17.

Salamanca. Unibertsitatetik gertu dagoen ikasle etxebizitza osatzeko ikasle euskalduna behar da. 665 71 01 64 edo 685 70 85 52.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Eguzki Dorrean garajea salgai. 670 26 34 01.

Bergara. Saldu edo errentan ematen da garaje bat San Lorentzo auzoan. Telefonoa: 943 76 58 28.

202. EROSI

Bergara. Karabana gordetzeko garaje bat erosi edo errentan hartuko nuke Bergara edo Antzuola inguruan. 665 71 39 61.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasaten. Uribarri etorbidean garaje itxia ematen da errentan, unibertsitatearen ondoan. 943 79 33 48.

Oñatin, auto bat sartzen den garajea ematen da errentan Bidebarrietan. 639 00 21 72.

Oñatin, Santa Marina plazan. Garaje handia da, bi autorendako tokia du. Telefonoa: 615 71 53 29.

3/ LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Antzuola. 20-40 metro koadro bitarteko lokal txiki bat errentan hartu nahi dut. 943 76 62 13.

Ile-apaintzaileak
behar ditugu Debagoienerako

Eskaintzen dugu:
- Kalitatezko prestakuntza
- Soldata lehiakorra
- Lan-ordutegi ona

Gaztea eta itxura onekoa bazara, helburu profesionalak badituzu eta estatuan sendo finkatutako enpresa batean lan egin nahi baduzu...

Hau da zure aukera, deitu:
902 19 75 07
E-posta: admin@rizos.es

azul DE RIZOS PELUQUEROS

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Aretxabaleta. Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, astean zortzi ordu. 605 75 41 23.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko, egunean bi ordu. 635 73 73 38.

Arrasate. Uribe auzoan emakume bat behar da, umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Aste baten goiezez eta hurrengoan arratsaldez. 943 77 16 19 edo 676 05 53 40.

Bergaran, pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 657 79 79 35.

Bergaran. Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko (goizez). 629 46 47 22.

Arrasate. Emakume bat behar da Arrasaten etxeko lanak egiteko. 600 06 54 58.

Oñati. Emakume bat behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Goizez: 07:30-09:00; arratsaldez: 16:00-18:00. Deitu gauez, 21:00etatik aurrera. 943 78 36 15.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Emakumea gertu etxeko lanak egin edo behebarruak garbitzeko. 943 77 21 12.

Arrasate. Emakume bat gertu etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Orduka edo egun osorako. Telefonoa: 652 73 29 33.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

Arrasate. Emakumea gertu etxeetan interna moduan lan egiteko, pertsona nagusiak zaintzen. 943 77 07 98.

Arrasate. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, eta umeak edo jende nagusia zaintzeko. 676 19 87 65.

Arrasate. Neska gaztea lanerako gertu. 646 15 21 20.

Bergara. Emakume batek pertsona edadetuak zainduko lituzke. 610 34 97 88.

Bergara. Emakume batek umeak edo zaharrak zainduko lituzke, arratsaldez. 660 91 94 23.

Bergara. Emakume euskaldunak umeak zaindu, etxeko lanak egin edo dendan lan egiteko gertu. 659 44 76 75.

Bergara. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanetan jarduteko. 696 84 19 51.

Bergara. Esperientziadun neska euskalduna, arratsaldeetan umeak zaintzeko edo etxeak garbitzeko prest. 649 36 13 47.

Bergara. Neska lanerako prest. 686 17 52 59.

Bergara. Umeak zaintzen eta dendari lanetan eskarmentua duen neska, lan egiteko prest. Telefonoa: 650 31 53 02.

Bergaran, neska prest etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 696 84 19 51.

Debagoiena. Neska eskaintzen da umeak edo adinduak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko, orduzka edo egun osoz. 676 19 87 65.

Debagoiena. Sistema Informatikoen Administraritza ikasi duen pertsona lanerako eskaintzen da. Telefonoa: 680 23 76 31.

Eskoriatza. Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. (Irati). 665 73 36 90.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Aretxabaleta. Lehenengo Batxilergorako eskola partikularrak jasoko nituzke, euskaraz: fisika, kimika, teknologia eta matematika. Telefonoa: 943 79 56 25 edo 658 14 64 61.

Arrasate. 16 urteko mutiko bati etxeko lanak egiten laguntzeko irakaslea behar da. 615 78 35 35.

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingeleseko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

Arrasate. Behar bereziak dituzten umeei laguntza eskolak ematen dizkiet. 645 73 04 69.

Arrasate. Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Esperientzia handia. Maila guztiak. 630 71 35 83.

Arrasate. Klase partikularrak ematen ditu ingeniari teknikoak. 635 75 21 74.

Bergara. Irakasle ikasketak dituen neska batek eskolak ematen ditu. Mari Jose. 652 76 12 81.

Bergara. Irakasle ikasketak dituen neska batek Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei eskola partikularrak emango lizkieke. Telefonoa: 699 89 36 53.

Bergara. Unibertsitateko ikaslea DBHko ikasleei eskola partikularrak emateko gertu. 605 72 82 99.

DBH eta batxilergoko eskola partikularrak emango nituzke. Esperientzia daukat. Nerea. 619 35 41 97.

Eskoriatza. Euskal Filologiako ikasleak euskarazko eskola partikularrak ematen ditu. 665 73 30 39.

Oñati. Kimikan lizentziadunak matematika, fisika eta kimikako eskola partikularrak ematen ditu. Iratxe. 943 78 19 59.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citroën Saxo 1.5 Diesel autoa. Sei urte eta erdi, 85.000 km. Matrikula: SS-AZ. AHT pasatuta 2006ra arte. 943 77 18 63.

Opel Vectra 2.0 autoa salgai. SS-AN. Estrak. Bizikletentzako gainaldea. 2.100 euro. 639 21 60 95.

Ford Fiesta autoa salgai. Egoera onean. Telefonoa: 629 40 74 37.

Mitsubishi Space Wagon 2.0 GLX autoa salgai. Zazpi eserleku. SS-AZ. 62.000 km. Oso ondo dago. 12.300 euro. 620 28 39 16.

Opel Vectra 1.8 autoa salgai. Gasolina. 1997koa. 91.000 km. 4.200 euro. 627 43 92 94.

Mercedes Sprinter furgoneta salgai. 5 zilindro. Turbo diesel intercooler. ABS. Aire girotua. Deitu telefono honetara: 690 26 70 27.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Oilo txiki edo amerikarrak salgai. 943 76 64 65.

702. EROSI

Txakurra. Baserri bat zaintzeko. Gaztea eta arra izan behar du. 660 79 87 46.

703. EMAN

Bergara. Hiru katakume oparitzen dira, zuriak, hilabete eta erdikoak. 660 40 64 75.

Siames arrazako katua ematen da opari. Arra da. Lau aste ditu. 669 63 17 84.

Txakurkumea. Seter Irlandarra ama eta Cooker Espainiarra aita. Zuri-gorria. 943 79 20 24 edo 635 20 18 56.

704. BESTELAKOAK

Bergara. Txakurra edukitzeko txabola salgai. Ez du orturako balio. 943 76 99 76.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Aurtengo babarrunak salgai. 943 76 33 78.

Autorako irrati-kasetea salgai. 10 CDrendako kargatzailearekin. 635 74 61 45.

Bergara. Solariuma salgai. Prezio ona. 943 76 16 87.

Bideo-kamera salgai. Panasonic. Berria. 150 euro. Telefonoa: 943 53 21 82 edo 661 22 51 49.

Bizikleta salgai. Razesa markako errepideko bizikleta. 48 neurrikoa. Grupo Shimano 105. Deitu telefono honetara: 635 74 61 45.

Borsini akordeoia salgai. Egoera onean. Telefonoa: 943 76 47 48.

Decathlon B' Twin bizikleta salgai. 200 euro. Nerea. 943 79 68 18.

Esku soinua salgai. Polverini markakoa, egoera onean. 943 76 16 58.

Eskusoinua edo akordeoi handia salgai. Tekladuna. 943 76 16 79.

Etxerako apaingarriak margotzen dira enkarguz. Merke. 600 71 59 55.

Ohea salgai. Zabaleran 90 cm ditu. Estreinatu gabea. 637 55 14 40.

Sagarrak eta madariak saltzen ditut. Urkulukoak. 20:30etik aurrera deitu, mesedez. Deitu telefono honetara: 943 79 46 16.

Sukaldea, labea eta frijigailu industriala salgai. 637 55 14 40.

802. EROSI

Bankuko billeteak erosten ditut, baita edozein metaletako txanponak ere. Deituz gero, neu joaten naiz bila. 945 44 50 44.

Lursail txikia erosiko nuke Arrasaten edo inguruan, ehizako txakurrak izateko. Telefonoa: 943 08 17 95 edo 619 28 98 70.

Neskendako paseoko bizikleta erosiko nuke. 699 49 14 18.

Perretxikoak eta onddoak erosiko nituzke. Telefonoa: 696 72 69 81.

806. GALDU

Belarritakoak galdu nituen irailaren 21ean Aretxabaletako Txakoli tabernaren aurrean. Aurkitu dituenak, mesedez, deitu telefono honetara. 636 69 18 82.

Bergara. Urrezko eskumuturrekoa galdu nuen irailaren 29an, Beheko Estaziotik Usondora bitartean. Sarituko da. 943 76 27 08.

Bergara. Urrezko pultsera bat galdu dut. Aurreko aldean "Garazi" jartzen du; atzeko aldean "03-06-17". Eskertuko da. Telefonoa: 943 76 25 03.

9/ HARREMANAK

903. DEIAK

Arrasatetik Gasteizera joanetorria egiten dut astelehenetik egubakoitzera, eta gastuak konpartitzeko pertsona bat behar dut. Interesatuok deitu telefono honetara: 652 73 14 43.

Julian Arexolaleiba eta **Felisa Billar** 1954ko urriaren 9an ezkondu ziren. Urrezko ezteiak ospatuko dituzte bihar, zapatua. Eskoriatzako Mazmela auzoan ezkondu ziren orain dela 50 urte. Zorionak!

Jesusa Agirrezabal eta **Bittor Irazola** bergararrek 55 urte bete dituzte ezkonduta gaur, egubakoitza. Esmeralda ezteiak egin dituzte, eta etxekoekin batera ospatuko dituzte.
Zorionak, familiaren partetik!

HILDAKOAK

Jesusa Munarriz Garcia. Oñatin, irailaren 28an. 97 urte.

Luis Gonzalez Ramos. Arrasaten, irailaren 29an. 76 urte.

Maria Fernandez Lopez. Bergaran, irailaren 30ean. 85 urte.

Isabel Gurrutxaga Lizarralde. Bergaran, urriaren 4an. 88 urte.

Adolfo Rios Blanco. Arrasaten, urriaren 5ean. 51 urte.

M. Asuncion Zumelaga Azkarate-Askasua. Bergaran, 5ean. 73 urte.

Renee Harbustan zuberotarrak eta **Esteban Arana** arrasatearrak zilarrezko ezteiak ospatu zituzten urriaren 6an.
Bedoñako Santa Eulalia elizan ezkondu ziren orain 25 urte.
Zorionak, zuen alaben partetik!

Benito Frutos eta **Beatriz Baz** eta **Carmen Frutos** eta **Emilio Gambra** 1979ko urriaren 13an ezkondu ziren Arrasateko San Isidro elizan. Zilarrezko ezteiak Karibean ospatuko dituzte. Kubara doaz laurak etzi, domeka. Zorionak, familiaren partetik, eta ondo pasatu!

URTEURRENA

Jabi
Larrañaga Barrena

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 10ean, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Isabel
Gurrutxaga Lizarralde

Bergaran hil zen urriaren 4an, 88 urte zituela

Hileta-elizkizunetara joandakoei, samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eta Mizpirualde egoitzakoei, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2004ko urriaren 8an.

ESKER ONA

Karmelo
Garaitonandia Kortabarria

Aramaion hil zen irailaren 29an, 63 urte zituela

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Aramaion, 2004ko urriaren 8an.

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

Antzutasuna
Erditzeak
Antisorgailuak
Menopausia
Ekografiak (4D)
Titietako gaixotasunak
Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
Hezur dentsitometria

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18

Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko urriaren 8a

HITZGEZIDUNAK

Luma

Baliagarri gertatu / Zori txar — Egiten hasten / Sindikatu abertzalea — *Izena
Bezainbat / Modu
*Deitura / Klariona — Gipuzkoako herria / Ebakia
Naizen hau / Uxarka
Heldu, atxiki / Zintzoa — Kiloa / Likido bihurtu
Emakume izena / Aluminioa
Musika estiloa / Doilor bihurtu — Ez eme / Mendi nafarra — Udalerri nafarra
Elur-erauntsi larri — 500 / Legez, bezala — Gipuzkoako herria / ...de Janeiro
Area / Kasik
Eriak zaintzen ditu / Gari sorta
Nauka

BILABILA7

UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

ZORRA ORDAINTZEKO

Plaentxiar batek zor zetsan eibartar bati. Ikusi dira. Eta artzekodunak diñotsa:
-Noiz pagau bihar destak?
- Ara ba —diño bestiak papela poltsikotik aterata—, emen listia... onetxek danok daukadaz... laugarren ago.
- Zer lista eta zer laugarren, etxaok deretxoik!
Orduan plaentxiarrak:
- I, txulo jartzen baiz, azkenera pasauko aut.

NI BANOIA

Beiñ batian deitxu zetsen prisa guztiakin Artadi medikuari etxe batera juateko. Beriala baten eldu da medikua gaixuarengana eta au asi zan negarrez eta larri, esaten:
- Artadi jauna, ni gaizki nago, ni banoia.
Eta medikuak:
- Ez ari estutu. Baoian bitxartian, ondo ago. Txarra dok eruaten gaitxuenian.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola

Zein herrik gainditu berri du 2.000 biztanleren muga?

Jakinekoa da orain dela 20 urteko biztanle kopuruarekin alderatuz gero, gaur egun orduan baino jende gutxiago bizi dela Debagoienean. Biztanle kopuruak behera egin du ordutik. Herri, batzuetan, baina, beherako joera hori aldatzen hasi da eta apurka-apurka gorantz doaz, herri txikienetan batik bat. Oraintsu, esaterako, 2.000 biztanleren muga gainditu egin du berriro ere herri batek. Zein herrik?

- Aramaiok.
- Antzuolak.
- Elgetak.
- Leintz Gatzagak.

Erantzun zuzena: Antzuolak. 2004 biztanle ditu gaur egun.

SOLUZIOAK



●	B	●	A	●	B	A	L
E	R	I	Z	A	I	N	●
A	Z	A	O	●	N	A	U

ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Energia soberan izango duzu eta lanean mailaz igotzeko aukera izango duzu. Aprobetxa ezazu! Bestalde, egunerokotasun aspergarrian bizi zara, eta hainbat aldaketa egingo dituzu.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Lan proiektuek ez dute aurrera egiten ez dakizulako zer gura duzun. Hortaz, aproposa izango litzateke buruan dituzun planak, kontratu sinatzeak, akordioak, eta abar bertan behera uztea, gura duzuna argi izan arte.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Aurretik egindako lan eskergaren fruituak jasotzen hasiko zara. Hurrengo egunak aisialdirako erabil itzazu, energiaz gainezka zaude-eta.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Oso une gogoangarriak bizi izango dituzu bikotekidearekin, eta orain dela gutxi izan dituzuen arazotxoak konpontzeko une egokia da. Eta bikotekiderik ez badaukazu, harreman berezia has zenezake.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Argi ibili zer egiten duzun, lanean hanka-sartzeren bat egin zenezake-eta. Hortaz, ezer egin aurretik ondo pentsatu. Bestalde, bidaiaren bat egiteko asmoa bazenuen, ezin izango duzu egin, familiarteko arazoak izango dituzu-eta.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Aldaketak egin gura dituzu alderdi guztietan, baina batez ere lanean. Hala ere, orain ez da aldaketok egiteko momentua, baizik eta informazioa eta aholkua eskatzeko, epe laburrera egin ahal ditzazun.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Ohi baino alferrago eta ameslari egongo zara, eta horrek arazo bat baino gehiago sortuko dizkizu, batez ere lanean, hobetzeko aukera polita gal zenezake-eta.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Arazoak izango dituzu ingurukoekin, eurei dagozkien ardurak zuri pasatuko dizkizute-eta. Ez utzi zapal zaitzaten. Bestalde, ezti eta C bitamina asko har ezazu, katarroei aurre egiteko.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Argi ibili zer egiten duzun, zure jarrera ezegokia izan daiteke-eta lanean mailaz igotzeko. Bestalde, ahalegin zaitez atseden hartzen.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Barne hausnarketa prozesuan murgilduta zaude, eta horrek eragin zuzena izango du ingurukoekin duzun harremanean; izan ere, ez dute jakingo zela jokatu zure jarreraren aurrean.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Arazoak bikotekidearekin, lotuago eduki gura izango zaituelako. Ez dizu utziko gura duzuna egiten. Horren ondorioz, bion arteko harreman hoztu egingo da. Eta bikotekiderik ez badaukazu, neska/mutil batekin baino gehiagorekin ligatuko duzu, baina ez da harreman seriorik sortuko.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Lana gura beste izango duzu eta, gainera, oso ondo ordainduko dizute, baina ez zara gustura sentituko; izan ere, lanak ez zaitu asetuko. Bestalde, argi ibili non zapaltzen duzun, zaintiraturen bat izateko arriskua duzu-eta..

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA

Urriaren 11: 016 zozketa

Harpidedunen **txokoa**

Sariak, astero!

Astelehenean, urriak 11, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Urriaren 11ko sariak

- **ZUMELAGA** jatetxean bi lagunendako afari zoragarria.
- Elgetako Espaloia antzokian urtarrilaren 22an egingo den **DANBAKA** kontzerturako 10 gonbidapen, irabazle bakoitzarendako bi.
- **'MAITEMINDUAK'** umeendako liburua, Erein argitaletxearen eskutik.
- **'ASTO BAT HYPODROMOAN'** umeendako liburua.
- **'AITONA-AMONEN OROIGARRIA'**, Mikel Valverde eta Bernardo Atxagaren liburua.
- **'TODO SOBRE MI MADRE'** filma DVDan.

FITERORA!
Fiteroko bainu-etxean **bi lagunendako aste bukaera** zozketatuko dugu, urrian. Zorte on!
Viajes Eroski Bidaiak
Grupo Eroski
Laguntzailea

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.
Urte amaierara arteko harpidetza: **10** €

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

015 zozketa saridunak

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!

Mertxe Galparsoro
Aramaio
SARIA: WHIRPOOL mikrouhin labea

Ipuruako futbol zelaian Eibar-Valladolid partidua ikusteko sarrerak
- Anabel Arantzadi (Aretxabaleta)
- Javier Agirre (Aretxabaleta)
- Karmen Arabaolaza (Arrasate)
- Lidia Agirrezabal (Bergara)
- Jose Luis Gorosabel (Eskoriatza)
- Izaskun Ormazabal (Oñati)

'AITONA-AMONEN OROIGARRIA' liburua.
- Ariznoa taberna (Bergara)

'MAITEMINDUAK' liburua.
- Felix Artzamendi (Arrasate)

'ASTO BAT HYPODROMOAN' liburua.
- Amaia Sasieta (Bergara)

'UMEENDAKO IPUIN KLASIKOAK' liburua.
- Jose Mari Muxika (Bergara)

'SOLAS' filma DVDan.
- Jon Balentziaga (Bergara)

‘Gure lanbide zaharrak’

EGUBAKOITZA, 8 / **21:30 eta 23:00**

Euskal Herriko harrigintzaren gaineko erreportajea

Historian barrena, harriak sekulako garrantzia izan du gurean. Trikuharrietatik hasie eta gaur egungo eraikin modernoetaraino, harria erabili dute euskaldunek. *Gure lanbide zaharrak* saioan, gaur, harria dugu protagonista.

Marrazki bizidunak

ZAPATUA ETA DOMEKA, 9 eta 10 / * IKUS TAULA

‘Kalabaza tripontzia’ euskal film ezaguna asteburuan

Oraingo asteburuan, euskaraz egindako lehenengo marrazki bizidunetako film luzea ikustekoa aukera izango duzue: *Kalabaza tripontzia*. 1985ean egin zuen Juanba Berasategi zinegileak eta garai hartan sekulako arrakasta izan zuen.

‘UDA-Aloña’

DOMEKA, 10 / **19:30**

UDAren eta Aloñaren arteko derbia oso-osorik

Debagoiendarren arteko derbia izango dugu asteburu honetan preferente mailan; UDAk eta Aloña Mendik neurtuko dituzte indarrak Ibarra futbol zelaian. Bi taldeak daude puntu premian, beraz lehia bizia espero da.

‘Behazulo’

EGUENA, 14 / **21:00 eta 22:30**

Asteburuko agenda eta eguraldi iragarpena

Pasa den astean hasi zuen ibilbidea *Behazulo* saioak bigarren urrats bat emango du oraingoan. Duela urtebete albiste izandakoak gogoratu, eta asteburuko agenda eta eguraldi iragarpena aurreratuko dizkigu, besteak beste.

TELEBERRIAK

Karlos Argiñanoren saioa kendu egin beharko dute TVE katetik

Epaileak hala aginduta, TVEk *La Cocina de Karlos Arguiñano* saioaren emanaldia bertan behera utzi beharko du berehala. TVE irailaren 6an hasi zen Argiñanoren saioa berriro ere emititzen, baina Tele 5ek salatu egin zuen. Orain, epaileak Tele 5i eman dio arrazoia. Beraz, hemendik aurrera Argiñanoren saio bakarra Tele 5ekoa izango da.

Ikasturte hasiera bikaina izan du ‘Aquí no hay quien viva’ telesailak

Eguaztenean, hilak 6, ekin zion ibilbide berriari Antena 3 kateko *Aquí no hay quien viva* telesailak. Ikus-entzuleen %40 erakarri zituen estreinaldian; hain justu ere, zazpi milioi ikusle pasatxok ikusi zuten aurreneko kapitulua.

Iraileko datuak esku artean, EiTBko ‘Vaya Semanita’ nagusi

Audientziak neurtzen dituen TN Sofres enpresaren datuen arabera, irail osoan Oscar Terolek aurkezten duen *Vaya Semanita* saioa nagusi izan da bere ordutegian, %29,1eko audientziarekin. Eta hari gertutik jarraitzen *Objetivo Euskadi* saioa dator. Adibidez, *okupen* gainean eman zuten kapitulua ikusleen %30,7k ikusi zuten. Bestalde, bi horiekin batera, EiTBko informatiboak dira gehien ikusten direnak, bai eguerdikoa (%20,6) baita gauekoa ere (%22,1).

ASTEKO PROGRAMAZIOA/ Urriaren 8tik 14ra

Goitb Goiena Telebista

EGUBAKOITZA 8	ZAPATUA 9	DOMEKA 10	ASTELEHENA 11	MARTITZENA 12	EGUAZTENA 13	EGUENA 14
13:50 **Marrazki bizidunak:** Kalimero. 14:15 **Berriak** 14:45 **Behazulo** 15:15 **Oinak izarretan** 15:45 **Berriak** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Kalimero. 21:00 **Ilunpean** 21:30 **Gure lanbide zaharrak:** Harrigintza 22:00 **Berriak** 22:30 **Ilunpean** 23:00 **Gure lanbide zaharrak:** Harrigintza 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	11:00 **Behazulo** 11:35 **Klip@** 11:55 **Marrazki bizidunak:** Kalimero. 13:30 **Jaiak 2004** Arrasateko Maritxu Kajoi festak eta Oñatiko eta Aretxabaletako San Migelak. 14:30 **Filma:** Kalabaza Tripontzia 15:30 **Ilunpean** 16:00 **Bi eta bat:** Pisukide berria 16:30 **Iragana gogoratuz:** Armagintza Debagoienean 17:00 **Klip@** 17:20 **Behazulo** 18:00 **Emisio amaiera**	11:00 **Filma:** Kalabaza Tripontzia 12:05 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak 13:10 **Klip@** 13:30 **Ilunpean** 14:00 **Oinak izarretan:** Manaslu: itzulera baten historia. 14:30 **Jaiak 2004** 15:30 **Gure lanbide zaharrak:** Harrigintza 16:00 **Filma:** Kalabaza Tripontzia 17:00 **Klip@** 17:20 **Behazulo** 18:00 **Iragana gogoratuz** 18:30 **Ilunpean** 19:00 **Bi eta bat** 19:30 **Derbia** UDA - Aloña Mendi 21:00 **Emisio amaiera**	11:00 **Filma:** Kalabaza Tripontzia 12:05 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak 12:35 **Klip@** 13:30 **Ilunpean** 14:00 **Oinak izarretan:** Manaslu: itzulera baten historia. 14:30 **Derbia** UDA- Aloña Mendi 16:00 **Filma:** Kalabaza Tripontzia 17:00 **Klip@** 17:20 **Behazulo** 18:00 **Iragana gogoratuz** 18:30 **Ilunpean** 19:00 **Bi eta bat** 19:30 **Emisio amaiera**	11:00 **Bi eta bat** 11:35 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak 12:00 **Klip@** 12:30 **Ilunpean** 13:00 **Gure lanbide zaharrak:** Harrigintza 13:30 **Derbia** UDA- Aloña Mendi. 15:00 **Marrazki bizidunak** Kalimero 15:30 **Marrazki bizidunak** Animalikeriak 16:00 **Klip@** 16:20 **Bi eta bat** 17:00 **Oinak izarretan** 17:30 **Ilunpean** 18:00 **Behazulo** 18:30 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Kalimero. 14:15 **Berriak** 14:45 **Jaiak 2004** 15:45 **Berriak** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Kalimero. 21:00 **Iragana gogoratuz:** Basoko lanbideak 21:30 **Telesaila:** Bi eta bat 22:00 **Berriak** 22:30 **Iragana gogoratuz** 23:00 **Bi eta bat** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak. 14:15 **Berriak** 14:45 **Iragana gogoratuz** 15:15 **Bi eta bat** 15:45 **Berriak** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak. 21:00 **Behazulo** 21:30 **Oinak izarretan** Manaslu/Anapurna: Udaberri negu 22:00 **Berriak** 22:30 **Behazulo** 23:00 **Oinak izarretan** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**
21:00 **Ilunpean**	13:30 **Jaiak 2004**	11:00 **Kalabaza Tripontzi**	14:00 **Oinak izarretan**	14:30 **Derbia**	20:30 **Kalimero**	21:00 **Behazulo**

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

KAMERA AURREAN

“Atxiloketak salatzeko egindako mobilizazio baketsuetan gertaturiko istilu larriak, gure herrian ezohikoak direnak, gaitzetsi gura ditugu”.

Juan Karlos Bengoa / Eskoriatzako alkatea
‘Berriak’ (2004/10/05)

“Lanak direla eta, Bergara guztia hankaz gora dago. Horren ondorioz, herriko jendea ez da herri erdialdera etortzen erosketak egitera”.

Maria Teresa Gabilondo / Bedelkar
‘Berriak’ (2004/10/06)

TELEBEGI/ Eneko Azkarate

Joselontxo GOITBn

Goiena Telebistak oraingo astean hasi du ikasturtea eta horrekin batera parrilla berria estreinatu du. Berritasun ugarirekin dator, gainera, GOITB: dekoratuak, aurkezleak, saioak… Albistegiek, esaterako, oso itxura modernoa erakusten dute, eta baliabide gutxirekin egin arren, telebista kate handienaren pareko agertu zaizkigu. Beste berritasun bat izango da aurki abiatuko den Danbaka musika lehiaketa, gure ibarreko *OT* txikia. Baina, berritasun denen artean nabarmendu nahiko nituzke kanpo produkzioko saioak, GOITB gainerako telebista kate estandarretara hurbiltzen lagunduko dutenak. Sasoi batean arrakastatsuak bilakatu ziren *Kalimero*, *Oinak izarretan* eta *Bi eta bat*. Aipamen berezia merezi du azken horrek, *Goenkale*-ren aurretik euskarazko telesail batek izan duen arrakastarik handiena lortu zuelako bere garaian. Eskertzekoa da ahalegina. Nik, behintzat, Joselontxoren (Jose Ramon Soroiz gazte gaztea) gorabeherekin egingo dut barre.

DANBAKA

DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Kontzertuetara joan nahi baduzu,

gaztekutxa

bidez gauzak erraztuko zaizkizu.

Gaurtik aurrera...

Gaztekutxako txartela daukatenek hiru euro balio duen sarrera euro bakarrean eskuratu ahal izango dute (kontzertu bakoitzeko lehenengo bi sarrerak). Horretarako, sartu **www.gaztekutxa.net** helbidean edo www.goiena.net-en, eta eskuratu sarrerak merke.

Gaztekutxa txartelik ez daukazula? Ba zure herriko Kutxako edozein bulegotara gerturatu, eskatu zure **Gaztekutxa** txartela (ez duzu ezer ordaindu beharko) eta gainera hurrengo kontzerturako bi sarrera oparituko dizkizu Kutxak.

Prezioak	**Espaloian**	**Gaztekutxa bitartez**
• Kontzertu bakoitzeko sarrera	3 euro	Euro 1
• 6 kontzertuetarako abonua	15 euro	6 euro

SARI NAGUSIA
Disko bat grabatzea

IZENA EMATEKO EPEA
2004ko urriaren 7a

IKUSLEAREN SARIA
Bateria bat + 1.000 euro musika instrumentuak erosteko

BERRI GEHIAGO
www.goiena.net/danbaka

gaztekutxa

Goienkaria · Kafe Antzokia espaloia Elgeta · Elgetako Udala · Memesa Industria Hornidurak · Ganesha Tattoo Grow Shop Piercing · Goitb Goiena Telebista · Mondragon Unibertsitatea · Goiena.net Debagoieneko ataria Interneten · jakina Sukaldeak • Bainu gelak Keramikak · Arrasate Irratia · Goienkaria · Gipuzkoako Foru Aldundia · Carrión música

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.228 ale • **Difusioa:** 18.185 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

EGUBAKOITZA, 2004ko urriaren 8a

Atzeskua

OIHANA ELORZA

Joxe Migel Agirrebeña 'Sapa'/ Perretxiko biltzailea

Zenbat kilo onddo batu dituzu? Aurten askorik ez, mokorretik operatu naute-eta. Bospasei aldiz joan naiz bakarrik onddo bila, eta irteera motzak egin ditut, oraindik ez bainago luzeak egiteko moduan.

Hala ere, onddo asko dago aurtengo udazkenean eta jendeak kilo mordoa batu ditu.

Askok taberna eta jatetxeei saltzen diete.

Aste honetan bertan esan digu jatetxe bateko ugazabak zortzi lagun joan zaizkiola onddoak eskaintzen.

Beharra duen norbaitek egitea normala iruditzen zait, baina badaude asko beharrik ez dutenak eta jatetxeei saltzearren bakarrik basoko onddo guztiak hartzera joaten direnak. Horien jarrera ez dut ondo ulertzen. Norberarendako bakarrik batu behar direla uste dut.

Nafarroan eta Panticosa aldean hasi dira dagoeneko kilo kopuruak mugatzen, eta hona ere helduko da hori.

Plastikoan ala otarrean batzen dituzu?

Otarrean beti. Plastiko barruan ito egiten da perretxikoa. Eta otarrarekin batera, labana ere beti eramaten dut aldean. Perretxikoak basoan garbitu behar dira.

Non batzen dituzu?

Duela urte asko, Karrantza aldean batzen nituen eta Portaloira joaten nintzen gero otarra bete onddoz. Non batu nituen galdetzen zidaten guztiek, eta nik Ozetan (Araba) batzen nituela erantzuten nien. Hurrengo egunean, 15 auto egoten ziren Ozetan.

Egia esan, ez naiz urrutira joaten onddo bila, inguruko mendietan batzen ditut gehienak.

Nola gordetzen dituzu gero?

Beirazko poteetan gorde izan ditut askotan, baina normalean izoztu egiten ditut. Lehen, zartaginean egin eta gero izozten nituen, baina orain, gordinik sartzen ditut izozkailura. Batzuk zatikatuta izozten ditut eta beste batzuk osorik. Erabat desizoztu baino lehen, erditik mozten ditut.

Eta nola prestatzen dituzu?

Arrautzarekin nahastuta baino, labean eginda gustatzen zaizkit gehiago. Osorik izoztutako horiek, esaterako, primerakoak dira gero labean egiteko. Modu batera zein bestera, berakatz freskoa botata gozoagoak dira. Nik, hala ere, batzen gozatzen dut gehiago.

Inoiz izan duzu ondoezik okerreko perretxikoa janda?

Ez. Nik ohitura txar bat dut: inoiz ez dut jaten ikusi ez dudan perretxikorik. Elkarteko lagun batek batzen baditu ere, ikusi egin behar ditut zartaginera bota aurretik. Jatetxe batean, esaterako, ez dut inoiz perretxikorik eskatu.

Hemendik aurrera kontuz ibili behar da, asko pozoituko dira bestela. Udazkenean ez da inoiz jan behar bustita dagoen perretxikoa. Laminari begiratu behar zaio.

"Diru beharrik ez duenak perretxikoak jatetxeei saltzea ez dut ulertzen"

"Nafarroa eta Panticosa aldean hasi dira dagoeneko kilo kopuruak mugatzen, eta hona ere etorriko da hori"

"Ohitura txar bat dut: inoiz ez dut jaten ikusi ez dudan perretxikorik"

► *Arrasate / 63 urte / Erretiratua*

PIPERRAUTSA

Uztaro

Urteko zazpigarren hilabeteari esaten zaio uztaila. Sasoi batean uzta gehienak uda hasieran izaten ziren seinale. Orduan batuko ziren soroetan baba beltza eta gorria, patata eta artoa, garia eta garagarra (uztaila=garagarrila). Aparte, ortuan izango ziren leka, ilar eta porruak. Sagarretan, sanjoan klasea eta besteren bat helduko ziren hain goiz, gutxienak.

Uztaila izendatu zenetik hona, asko jaitsi da baserriko ekoizpena, basoek eta porlanak hartu dute orduko soroen tokia. Aparte, aldatu egin da ekoizten dena eta horrekin uztaren egutegia. Nirearen inguruko baserrietan, patatak irauten du lehengoan, baina arto eta baba apurrak beranduago izaten dira, eta laborerik ez da ereiten. Gaur apenas deituko genukeen uztaila urteko zazpigarren hilabetea.

Gurean mahatsa da nagusi, eta joan den larunbatean izan genuen uzta. Oraindik mahasti gazteak dira, baina aurten eraman ditugu 4,3 tona mahats Mendrakako upeldegira. Lana arintze aldera, 35 lagun bueltan bildu ginen eta bazkalordurako amaitua genuen lana. Ondoren, bapo bazkaldu eta erromerian aritu ginen, dantzan eta kantuan ilundu arte. Lege zaharrean.

Uztak jaia eskatzen baitu, zeharo txarra izan ez bada. Ziklo baten amaiera da, eta berrirako abiapuntu. Egindakoari dagokion saria eta hurrengoan hobetzeko aukera.

Urduritasunak atzean, neke gozoa utzi dit aurten uztaroak.

MIKEL IRIZAR

GRUPO ARKAUZ

ARKAUZ ELEKTRAGAILUAK
Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA
expert

ARKAUZ ALTZARIAK
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ARKAUZ SUKALDE INTEGRALA
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA
FAGOR

ETXEMOBEL MUEBLES ALTZARIAK
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE